§ 2. Estatutu honen ezarpen eta garapenerako, Zuzenbidea kontuan hartuz, Gotzainak aldarrikatu daikezan arautegi, direktorio eta jarraibideak gehituko jakoz, orain arte Kuriako erakunde desbardinetan indarrean egon diran arautegi desbardinak jasoz eta eguneratuz (ik. 34 eta 95 kk.).

4. ARTIKULUA

§ 1. Eleizbarrutiko Gotzainari jagoko:

1. Eleizbarrutiko Kurian ofizioetan aritu behar daben personen izendapena, dalako kargu batean ala bestean arituko diran horreek artzainaren konfiantza izan behar dabelako, gotzain ministerioaren arabera jagokozan pastoral egitekoen garapenean bere gertuko laguntzaile diralako. Horretarako bereizketa egoki eta bidezkoa egingo dau eta bidezko kontsultak egingo ditu eta aholkua eskatu jagoken persona eta erakundeen artean (ik. 470 k.). Gotzainari jagoko, Bikario Nagusia eta Gotzain Bikarioak izendatu aurretik, kontsulta zabala egitea eleizbarrutiko erakunde desbardinetan.
2. Zuzenbidean agintzen danaren arabera existitzen diran bere erakundeen arautze osagarria (ik. 381 k., § 1).
3. Zuzenbide orokorrak ezarritako eremuaren barruan, Eleizbarrutiko Kuriak bere helburuak lortu daizan ezinbestekotzat edo komenigarritzat joten di-

tuan beste erakunde batzuen sortze eta arautzea eta baita desegite edo aldatzea be (ik. 391 k.).

§ 2. Aitatutako erakunde horreen sortzea edo aldatzea edo desegitea, eta baita Kuria osatuko daberen personeren izendatzea be, idatziz egingo da, dekretu bidez (ik. 145 eta 156 kk.)

5. ARTIKULUA

Eleizbarrutiko Kurian edozein kargutan jarduten daberen eskumenak izango dira, ohiko edo ezohiko bidetik, Zuzenbidean jasotakoaren arabera, Gotzainak esleitzen jaken zerbitzua hobeto beteteko emoten deusazanak.

6. ARTIKULUA

§ 1. Kargu edo funtzinoren bat betez, Kuriako partaide diranengan, funtsezko eskakizun dira:

1. Alkartasun betea Eleizaren Fede, Tradizino, Irakaspen eta diziplinagaz.
2. Bere ardurapean izten dan misinoagaz bat datorren bizimodua, irregulartasun edo eragozpen bakoa.
3. Agintzen jakona burutzeko gaitasuna.
4. Leialtasuna, eredugarritasuna eta sen apostolikoa betebeharrak beteterakoan.
5. Sekretua gorde, mugen barruan eta Zuzenbideak edo Gotzainak ezarritakoaren arabera (ik. 149 eta 471 kk.).

§ 2. Kurian ofizioetarako onartuak diranek agerian aginduko dabe euren egitekoen betete leiala, Zuzenbideak eta, jagokonean, Gotzainak xedatutakoaren arabera. Bikario Nagusiak, Gotzain Bikarioek, Auzi Bikarioak eta, jagokonean, Auzi Bikario laguntzaileak, gainera, fede-autormena eta leialtasunzina egingo dabe (ik. 471, 1. eta 833, 5. kk.)

§ 3. Kuriako sail desbardinetan jarduteko izendatu daitekez fededun laikoak, gizon eta emakumeak, Eleizan daben bokazino eta misinoagaz bat eta Zuzenbideko arau orokorren arabera. Euren ofizio eta egitekoen arautze zehatza be indarrean dagoan Konkordatuzko Zuzenbidean zein Zuzenbide Zibilean jasoten diran eta eurei ezarri dakikeezan arauen arabera egingo da.

7. ARTIKULUA

§ 1. Kuriako eleiz-ofizioa alde zurretik jarritako denporea igaro izanagaitik, Zuzenbidez erabagotako adina beteteagaitik, Gotzainak onartutako dimisinoagaitik, Zuzenbidezko arau orokorren arabera gauzatutako lekualdatze edo gabetzeagaitik eta, Zuzenbidezko arau orokorren arabera ezarri dakikeen ofizioetarako, Gotzain Aulkia etenda edo hutsik geratzeagaitik.

§ 2. Aldez zurretik jarritako denporea igaro izanagaitik edo adina beteteagaitik ofizioa galtzea Gotzainak idatziz jakinarazoten dauan unetik aurrera gertatzen da.

§ 3. Eleiz-ofizioaren titulartasunetik kanpo, Kuriari kontratu bidez atxikita dagozan pertsonen jardueraren amaierari jagokonez, kontuan hartu beharko dira, alde batetik, dalako lan-kontratu horreei jagokezan zehazpen eta baldintzak eta bestetik, indarrean dagoan Lan-zuzenbidetik ezarri daitekezan arauak.

8. ARTIKULUA

§ 1. Ondorengo sail eta erakundeek osatuko dabe Bilboko Eleizbarrutiko Kuria:

1. Eleizbarrutiaren gobernu orokorrerako organoak:
 - a) Bikario Nagusi bat edo gehiago, eleizbarrutiko Gotzainaren erespidearen arabera.
 - b) Gotzain Bikarioak.
 - c) Gotzain Kontseilua.
2. Kuriaren berariazko egitekoen garapenerako erakundeak:
 - a) Ordezkaritzak, Idazkaritzak eta Eleizbarrutiko Sailak.
 - b) Kantzelaritza eta Notaritzak.
 - c) Idazkaritza Nagusia.
 - d) Eleizbarrutiko Administrazioa.
 - e) Eleiz Auzitegia.
 - f) Beste erakunde batzuk: Lege-aholkularitza, Artxiboen Eleizbarrutiko Zerbitzua eta Gotzainaren Idazkaritza Partikularra.

§ 2. Ikuspuntu praktikotik, eta eleizbarrutiko Kuria osoaren eginkizuna zerbaiten edo norbaiten bitartez edo zuzenean, Eleizaren misino ebanjelizatzailearen probetxurako dala oinarritzat hartuta, Bilboko Eleizbarrutiko Kuriako erakundeak honan egituratzen dira:

1. Kuria Pastoral: bertan dagoz Eleizan iragarpenaren, ospakizunaren, kari-dadearen eta alkartasunaren gauzatzearen garapena misinotzat daukien erakundeak.

2. Kuria Aministratiboa: bertan atxikita dagoz Eleizaren misinoa garatzeko ezinbestekoak diran ekonomia- eta administrazio-zerbitzuak eskaintzen dabezan erakundeak.
3. Justiziarako Kuria edo Eleiz Auzitegia: Gotzainari laguntza emoten deuto bere ahalmen judiziala gauzatzerakoan.

§ 3. Eleizako legeriaren arabera, Kuriak zuzenbide unibersaleko erakunde eta ofizioak ditu, Zuzenbide Kanonikoko Kodeak ezarri eta arauturakoak, eta Bilboko Eleizbarrutiko zuzenbide partikularreko erakunde eta ofizioak, ondorengo sailkapenaren arabera:

1. Eleizako zuzenbide unibersaleko erakunde eta ofizioak dira:
 - a) Bikario Nagusiak.
 - b) Gotzain Bikarioak.
 - c) Gotzain Kontseilua.
 - d) Kuriako Moderatzailea.
 - e) Kantzelaria eta Notarioak.
 - f) Eleizbarrutiko Artxiboa.
 - g) Ekonomia Gaietarako Batzordea.
 - h) Eleizbarrutiko Ekonomia.
 - i) Auzi Bikarioa eta, jagokonean, Auzi Bikario laguntzaileak.
 - j) Eleiz Auzitegia.
 - k) Eleizbarrutiko Epaileak, Justizia Eragilea, Kontu-ikuskaria, Loturaren Defentsaria eta Notario judiziala.
2. Bilboko Eleizbarrutiko zuzenbide partikularreko erakunde eta ofizioak dira:
 - a) Ordezkaritzak, Idazkaritzak, Sailak, Idazkaritza Nagusia, Lege-aholkularitza, Artxiboetarako Eleizbarrutiko Zerbitzua eta Gotzainaren Idazkaritza Partikularra.
 - b) Ordezkariek, Zuzendariak, Idazkari Nagusia, Artxiboetarako Eleizbarrutiko Zerbitzuko Arduraduna, Gotzainaren Idazkari Partikularra.

9. ARTIKULUA

Era berean, Gotzainaren laguntzaile dira Eleizbarrutiaren gobernuan, ardurakidetasunezko eta kontsultarako organo kolegiatu lez, Abade Kontseilua, Aholkularien Kolegioa, Eleizbarrutiko Pastoral Kontseilua, Katedraleko Kapituluak, euren Estatutuen arabera, nahiz eta, berez, eleizbarrutiko Kuriaren barruan ez egon (ik. 502; 495-501; 511-514 kk.). Bakotzak bere Estatutuen arabera jardungo dau eta gotzainak onartuta egongo dira dalako Estatutu horreek.

II. TITULUA

BIKARIO NAGUSIA ETA KURIAKO MODERATZAILEA

10. ARTIKULUA

§ 1. Bikario Nagusiari jagoko, Gotzainaren atzetik, Kuriako hierarkia administratiboko lehenengo maila, bere menpean geratzen diralarik eleizbarrutiko administrazioa osatzen daben ofizio guztiak.

§ 2. Eleizbarrutiko Gotzainak bere nahierara aukeratuko dau Bikario Nagusia eta berari jagoko mobidutea be.

§ 3. Bikario Nagusia ez dagoanean edo benetan ezinduta dagoanean, eleizbarrutiko Gotzainak bere lekua hartuko dauan beste norbait izendatu daike; arau bera ezartzen jako Gotzain Bikarioari be.

§ 4. Bikario Nagusiak konpontzeke edo konponduta dagozan gai garrantzitsuen barri emongo deutso Gotzainari eta inoiz ez dau eleizbarrutiko Gotzainaren borondatearen eta asmoen aurka jokatuko (ik. 480 k.).

11. ARTIKULUA

§ 1. Bikario Nagusiak ahalmen eragile edo administratiboa, arrunta ala ofizioari erantsia, betikoa ala jaubetzakoa dau eta Gotzainaren izenean gauzatu daike eta horren arabera Eleizbarruti osoan eta Gotzainaren menpe. Lekuko Ordinariotzat hartzen da. Berari jagoko, beraz, edozein eratako jarduera administratiboak egitea, Gotzainak beretzat gorde dituanak edo aparteko mandatua eskatzen dabenak izan ezik (ik. 134; 475 eta 479 kk.).

Vatikanoak Gotzainari emoten deutzazan ahalmenak be bajagokoz eta aita santuaren idatziak burutzea, beren-beregi beste zerbait ezartzen ez bada edo eleizbarrutiko Gotzainaren ezaugarri pertsonalak kontuan hartu ez badira (ik. 65 k.).

§ 2. Gotzainak, berariazko gairen bati buruzko eskumen zuzen, berehalako eta eksklusiboa emon deikeo Bikario Nagusiari, bere ofizioaren arabera egiteko arruntetik kanpo. Ondorioz, dalako gai hori Kuriako beste edozein erakunde edo personaren ohiko eskumen-eremutik bereiztuta geratzen da.

§ 3. Bikario Nagusi batek grazia ukatu ezker, ez da onargarria beste Bikario Nagusi edo Gotzain Bikario batek emotea. Gotzainak emotea be ez da onargarria izango, Bikario Nagusiak ukatu egin dauala aurretik jakinarazoten ez bajako. Ez da onargarria, ezta be, Bikario Nagusiak aurretik Gotzainak ukatutako grazia emotea, Gotzainak beren-beregi onartzen ez badau behintzat. Ez dau onargarritasunik Bikario Nagusiak beste Bikario batek ukatutako grazia emotea be, aldeztu aurretik Bikario horrek ukatu

egin dauala jakinarazoten ez bajako eta azken honen eretxia eskatzen ez badau aurretik (ik. 477 k., § 2).

§ 4. Bere ofizioa itziko dabe, euren agintaldia betetean, legezko bideetatik aurkeztu eta onartutako uko egiteagaitik, Gotzainak jakinarazotako lekualdatzeagaitik eta Gotzain Aulkia bertan behera edo hutsik geratzeagaitik (ik. 481 eta 409 kk.).

12. ARTIKULUA

§ 1. Eleizbarrutiko gotzainak Kuriako Moderatzailea izendatu daike (ik. 473 k., § 2).

§ 2. Gotzainaren eretxiz, inguruabarrek beste zerbait eskatzen ez badabe behintzat, Bikario Nagusia izendatuko da Kuriako Moderatzaile ofiziorako, eta bat baino gehiago badira, Bikario Nagusietako bat (ik. 473 k., § 3).

§ 3. Bikario Nagusi bat baino gehiago egon ezkerro, Gotzainak Moderatzaileak ez izendatzea erabagi daike eta Kurian egiten diran lanak euren artean banatzea, bako txak koordinatu daizan, bere agintepean. Kasu honetan, Bikario Nagusi bako txak lehenetasunez hartuko ditu bere gain, esleitu jakozan Kuriako sailetan, ondoren Moderatzailearentzat aitatzen diran egitekoak.

§ 4. Kuriako Moderatzailearen berariazko misinoa da:

1. Kuriako jarduerak suspertu, koordinatu eta zuzendu, Gotzainaren aginduetara.
2. Kuriako behargin guztiek euren zereginak zuzen betetea jagon (ik. 473 k., § 2).

§ 5. Egiteko honeek beteteko:

1. Komenigarria deritxan informazioa eskatu deikeo eleizbarrutiko Gotzain Bikario, Ordezkari eta Zuzendariei eta beharrezkotzat jotzen dauanaz hornitu, euren lanen koordinazio hobeari begira.
2. Aldian-aldian hartu-emonean jarriko da Kuriako erakunde bako txeko arduradunakaz eta bidezkotzat jotzen dauan Kuriako beste kide batzukaz, eginkizunen ikuskarpen eta koordinazio egokirako.
3. Batzarrak egin ahal izango ditu Kuriako ofizio guztiakaz euren jarduera, erabagi eta egitasmoen barri jasoteko, osatzen daben zerbitzu guztien koordinazio eta kudeaketa ahalik eta onena bermatze aldera.
4. Kontsultarako batzordeak eratu ahal izango ditu, bidezkotzat jotzen dauan.

5. Ofizioen arteko eskumen-esleipena erabagiko dau, gai bererako eskumen konpartitua dagoanean.
6. Bidezko txostenak eskuratu ondoren, Kuriako jarduera eraginkor eta ari-nago bihurtuko daben dekretuen, ordenazioen, arautegien eta direktorioen proposamenak aurkeztuko deutzaz Gotzainari.
7. Kuriaren zerbitzuan jardungo daben personen kontratazinoetan esku-hartuko dau eta dalako kontratu horreek bere onespengaz egingo dira.
8. Eskumena dau, Kantzelariagaz batera, eleizbarrutiko Artxibora sartzea eta bertatik agiriak ateratea baimentzeko (ik. 487, § 1 eta 488 kk.).
9. Kantzelariak eta Idazkari Nagusiak eragin juridikoak izan daikiezan Kuriako jardueren barri emongo deutse (ik. 474 k.), agindu izan jakon egiteko koordinatzailea ahalbideratu ahal izateko.

III. TITULUA

GOTZAIN BIKARIOAK

13. ARTIKULUA

Eleizbarrutiko gotzainak bere nahierara izendatzen ditu Gotzain Bikarioak, izendapeneko ekitaldian bertan erabagitzen dan aldirako, eta Gotzainak berak bere nahierara mobiduten ditu (ik. 475-478 kk.).

14. ARTIKULUA

Eleizbarrutiaren gobernu egokiak eskatzen dauanaren arabera, Gotzainak Eleizbarrutiko lurralde jakin baterako izendatu daikez Gotzain Bikarioak (lurralde ahalmena), gai jakin batzuetarako (aparteko ahalmena) edo lagun-talde jakin baterako (ahalmen pertsonala) (ik. 476 k.).

15. ARTIKULUA

§ 1. Gotzain Bikarioek Zuzenbide unibersalez Bikario Nagusiari jagokon eskumen arrunta dabe, baina berari esleitutako lurraldera, gaietara edo lagun-talde jakinera mugatuta, Gotzainak, izendapen-aginduan eskumenak gehitu ezean eginkizunei edo lurraldeari jagokenez (ik. 476 eta 479 kk., 131, § 1 eta 2; 134 kk. aitaturaz).

§ 2. 11, § 2 artikuluan jasotakoa ezartzen jake Gotzain bikarioei.

§ 3. Bere ofizioa itziko dabe legezko bideetatik aurkeztu eta onartutako uko egi-teagaitik, dekretatutako eta agindutako lekualdatzeagaitik eta Gotzain Aulkia bertan behera edo hutsik geratzeagaitik (ik. 481; 189; 192-195 eta 481, § 2 kk.).

16. ARTIKULUA

Gotzain Bikarioei jagokez, bakotxari bere lurraldean, euren Bikaritzza osatzen daberen persoei edo euren esku itzitako gaien inguruan, besteak beste, ondorengo egin-kizunak:

1. Pastoral jarduera suspertu, koordinatu eta zuzendu, Gotzainak eta bere Gotzain Kontseiluak jarritako jardunbideen arabera.
2. Bakotxak bere inguruko edo eremu pertsonaleko pastoral beharritzei buruzko informazio egokia batu eta ordenatu eta Gotzain Kontseilura eroan, Gotzainak aintzat hartu daizan eta erantzuna emon deien.
3. Ebanjelizatzearen Eleizbarrutiko Egitasmoa egiten eta euren Bikaritzetan garatzen era ezartzen lagundu.
4. Pastoral eragileakazko alkarrizketea eta lankidetzak ahalbideratu eta suspertu.
5. Abadeei, diakonoei eta biziera sagaratuko institutuak, institutu sekularretako eta biziera apostolikoko alkarteak kideei jaramon egin, bisitaldia egin eta eurakaz hartu-emon estua izan, bizitza eta jardura apostolikoan adre emonez.

17. ARTIKULUA

Kuriako erakunde orokor bakar batek be ez dau gotzain Bikaritzei jagoken gaien inguruan erabagirik hartuko jagokoren Bikarioaren eretxia kontuan hartu barik.

IV. TITULUA

GOTZAIN KONTSEILUA

18. ARTIKULUA

§ 1. Eskumeneko eraketako erakundeen barruan dagoan Gotzain Kontseilua (ik. 473, § 4 k.), alkartasun eta ardurakidetasunezko erakunde lez eratzen da Bilboko

Eleizbarrutian eta beronen bitartez Gotzainak Bikario Nagusien eta Gotzain Bikarioen pastoral jardueraren koordinazio-lana gauzatzen dau.

§ 2. Eleizbarrutiaren gobernuan batasuna ziurtatzea da Kontseilu honen helburu nagusia. Egiteko hori, Gotzainari aholkularitza eskainiz, kideek alkarri informazioa emonez eta jarduerarako erespideak ezarriz gauzatzen dau.

§ 3. Gotzain Kontseiluak Gotzainari laguntzen deutso eleizbarrutiaren gobernuan, informazioa emonez, aholkularitza eskainiz, personei eta gauzei lotutako balioko erabagiak prestatzen eta azkenean Gotzainak hartu dauan erabagia gauzatzen lagunduz.

19. ARTIKULUA

§ 1. Gotzaina buru dala, Bikario Nagusia eta Gotzain Bikarioak izango dira Kontseilu honetako kideak.

§ 2. Landuko diran gaien ezaugarriak dirala-eta komenigarritzat jotzen danean, Idazkari Nagusiak, Kantzelariak, eleizbarrutiko Ordezkariek edo Idazkaritza eta Zerbitzuetako Zuzendariak, eleizbarrutiko Kuriako ofizio desbardinetako titularrek edo eleizbarrutiko beste erakunde batzuetako arduradunek Gotzain Kontseiluaren batzarretan parte hartuko dabe, konbidatu lez.

§ 3. Gotzain Kontseilua ez da batzartuko Gotzaina kanpoan danean edo ezinduta dagoanean, landu beharreko gaiak atzeraezinak diranean eta Gotzainak baimena emoten dauanean izan ezik. Hori gertatu ezker, Bikario Nagusia izango da presidentea, Gotzainak eskuordetuta.

20. ARTIKULUA

Besteak beste, honeek dira Gotzain Kontseiluaren egitekoak eta eskumenak:

1. Gotzainaren eta eleizbarrutiko Kuriaren gobernu-jarduerai laguntzen deutso informazioaren, aholkularitzaren eta egintza edo erabagi juridiko eta pastoralen prestaketaren bidez.
2. Kontsultarako, alkarrizketarako eta Gotzainari eleizbarrutiko pastoral jarduerarako proposamen operatiboak aurkezteko eremua da.
3. Bikario bakotzak konpontzeke edo konponduta dagozan gaien barri emon behar deutso Gotzainari eta ez dau eleizbarrutiko Gotzainaren borondate eta asmoen aurka jokatu behar.

4. Tresna egonkorra da Gotzainari eta baita Kontseiluko kide diran Eleizbarrutiko gainerako Ordinarioei be kontsultak eta informazioak ahalbidertzeko.
5. Gobernu-jardueran izan daitekezan adostasunik ezak konpontzen ditu eta jarduera-eta erespide-batasuna errazten dau gairik garrantzitsuenetan.
6. Eleizako izendapenak prestatzen ditu.
7. Eleizbarrutiko bizitzarako bereziki garrantzitsuak diran gai batzuen trataera bideratu egiten dau.
8. Aholku emoten deutso Gotzainari abadeen bizitza, eskubide, betebeharrak, diziplina, banaketa eta heziketari buruz.
9. Eleizbarrutiko gainerako batzorde, kolegio edo erakundeen jardueraren suspertzaile lez jarduten dau, adore emonez eta bakotxaren autonomia eta erantzukizuna errespetatuz.
10. Gotzain Kontseiluak gobernu-erabakiak hartu daitez, normalean erabaki horrek kanpoan eraginkortasun juridikorik izango ez badau, be Gotzainaren edo Kontseiluko kide diran lekuko Ordinarioetako baten eskubidezko jardura lez gauzatu arte.
11. Bikario bakotzak, Gotzain Kontseiluaren batzarretan aztertzen danaz gainera, Gotzainari eskuartean darabilzan gaien barrien barri zuzenean emonete eskubidea dau.
12. Gotzainak beto-eskubidea erabili ahal izango dau beti proposamen batzuetan, gai batzuk eztabaidatik kanpo itzi daitez edo dalako kontu batzuen azterlan eta tratamentua beretzat gorde.

21. ARTIKULUA

§ 1. Gotzain Kontseilua, normalean, astero batzartuko da eta Gotzaina buru dala; hau kanpoan danean eta, halanda be, Kontseilua batzartzea erabagitzen danean, eskuordetutako Bikario Nagusia izango da buru.

§ 2. Normalean, Gotzain Kontseiluak adostasunez hartuko ditu bere erabakiak, Gotzainak bozketa eskatu badaike eretxia formalki adierazoteko, garrantzi handiagoko gaiak lantzen diranean edo aho bateko adostasunik jasoten ez daben gaietarako.

§ 3. Batzarretarako gai zerrenda Bikario Nagusiak prestatuko dau, Gotzainagaz bat.

§ 4. Gotzainaren eretxiz, gai jakin bat lantzeko beharrezkoa bada, Kontseiluak “txosten” erara aztertuko ditu gaiak, lagun bati edo batzuei aginduz gauzak sakonago aztertzeko aukerea emongo dauan txostena egitea: aurretik ze ebazpen egon izan dan, ze ezarri dakikeon kasuari, ze arrazoi dagoan alde edo aurka.

§ 5. Gotzain Kontseiluaren deliberamenduak sekretuak dira, kontrakoa agertzen dan gaietan izan ezik.

§ 6. Kontseiluak erabagiko dau bere saioetako akta egiteko erarik egokienaren inguruan. Gotzainak onartuko ditu aktak eta Kantzelariari jagoko gordetea.

V. TITULUA

ELEIZBARRUTIKO ORDEZKARITZAK, IDAZKARITZAK ETA SAILAK

1. KAPITULUA: IZAERA ETA EGINKIZUNAK

22. ARTIKULUA

§1. Eleizbarrutiko Ordezkaritzak pastoral jarduerarako erakundeak dira. Gotzainaren aginpide eta zuzendaritzapean, Gotzainaren ministerio jardueraren arlo desbarden animazinoa, suspertzea eta koordinazinoa ziurtatzen dabe eleizbarruti osoan. Beraz, Gotzaina da Eleizbarrutiko pastorgintzaren arlo guztien antolaketa eta suspertzearen arduradun nagusia.

§ 2. Era berean, Ordezkaritzak eleizbarrutiko parrokia, komunitade, pastoral barruti, bikarritza, mobimentu, alkarte eta beste erakunde batzuei, agindu jaken pastoral egitekoa garatu daien, laguntza, akonpainamendua eta sustapena eskaintzen deustien erakundeez osatuta dagoz.

§ 3. Gotzain Kontseiluak proposatuta, eleizbarrutiko Gotzainak izendatuko dauan Ordezkaritzak izango da buru Ordezkaritza bakotxean.

§ 4. Ordezkaritza bakoitzean, sektore espezializatuenetako pastoral animazinoaz arduratzeko, Batzordeak eratu ahal izango dira eta honeek jagokon Ordezkaritzak bat eginda jardungo dabe. Arduraduna izango da Batzordeko buru; Ordezkaritzak gainbegiratu dau Arduradunaren lana eta honek Batzordearen jardueren barri emongo deustso. Eleizbarrutiko ordezkaritzak proposatu eta Gotzainak berretsiko dau.

§ 5. Idazkaritzak be sortuko dira pertonez arduratu daitezcan euren bizitzako egoera desbardenetan: laikoentzat, abadeentzat, diakonoentzat edo klausurako erlijioentzat. Eleizbarrutiko Gotzainak, Gotzain Kontseiluak proposatuta, Zuzendaritzak izendatuko dau Idazkaritza bakotxean buru izan daiten.

§ 6. Sailak, teknikoak dira eta Eleizaren pastoral misinoaren zerbitzura dagoz. Horreetako buru lez, Gotzainak Zuzendaria izendatuko dau, Gotzain Kontseiluak proposatuta.

§ 7. Dalako erakunde horreetako bakotxaren berariazko Arautegian jasoko dira Ordezkaritza, Idazkaritza eta Sailen edukina, egitura eta jarduna, edo bidezkoa danean, Gotzainak emondako aparteko aginduz.

23. ARTIKULUA

Ordezkeri eta Zuzendariak Gotzainaren borondate eta asmoakaz bat eginda jardungo dabe beti.

24. ARTIKULUA

§ 1. Bikario Nagusiari jagoko Ordezkaritza, Idazkaritza eta Sailen gertuko gainbegiratze eta koordinazioa. Bikario Nagusi bat baino gehiago egon ezker, hemendik aurrera jasoten dana lehentasunez izendatutako Bikario Nagusiaren ingurukoa da.

§ 2. Behar dan besteko aurrerapenagaz, Ordezkeri eta Zuzendari bakotxak pastoral ekiturterako helburu eta jardueren egitaraua aurkeztuko deutso Bikario Nagusiari, horreek burutzeko ezinbesteko baliabideak eta epeak eta kostu eta finantzaketa zehaztuz, Eleizbarrutiko aurrekontu orokorrean kontuan hartu ahal izateko.

§ 3. Bikario Nagusiari jagoko, egindako proposamenen arabera, Gotzainari aurkeztea onartu daizan edo bidezkoa danean, programazio barria eskatzea, helburuen errepikapena edo euren arteko desadostasuna saihestuz.

§ 4. Era berean, Bikario Nagusiaren ardura izango da Ordezkaritzen programazioak, euren hedapenean eta burutzeko ezinbestekoak diran baliabide ekonomikoetan zerikusia daben eleizbarrutiko erakundeei bialtzea.

§ 5. Gotzain Bikarioek, Ordezkeriak eta Zuzendariak hartu-emon egonkorra eta maizkoa izango dabe, pastoral jardueran ahalik eta koordinaziorik onena eta Kuriako erakundeen eta lurraldeetako pastoral jardueraren arteko lotura bermatzeko.

§ 6. Beharrezkoa dan guztietan, Ordezkeri eta Zuzendariei dei egingo jake Pastoral Kontseilura joan eta jagoken pastoral arloko egoeraren, lehentasunezko jarraibideen eta garatu gura dabezan ekintzen barri emon daien. Era berean, eleizbarrutiko pastorgintzan bultzatzeko komenigarritzat jotzen diran jarraibide eta jarduerak jasoko dabez Gotzain Kontseilutik. Eurek bidezkotzat jotzen dabenean be egin daikie Gotzain Kontseilura barri emotera edo kontsulta egitera joateko eskaria.

25. ARTIKULUA

Honeek dira Eleizbarrutiko Ordezkaritza, Idazkaritza eta Sailen eginkizunak:

1. Euren jardun lekuaren gorabeheren ezagutza egokia izan: arazoak, beharri-zanak, preminak, aukerak, e.a.
2. Ebanjelizatzearen Eleizbarrutiko Egitasmoaren eraketan esku-hartu.
3. Lana programatu eleizbarrutiko Gotzainaren eta Gotzain Kontseiluaren zuzendaritzapean, Ebanjelizatzearen Eleizbarrutiko Egitasmoagaz bat eta parroketako pastoral barrutietako, komunitateetako eta eleizbarrutiko gainerako errealidadeetako gorabehera eta beharrianen barri zuzena izanda, programazinetik eratorritako jarduerak garatzeko eta lan-egitasmoaren ebaluazioa egiteko.
4. Jagoken ebanjelizatze-eremuko jarduerak koordinatu eta suspertu, maila guztietan eta Eleizbarruti osoan, batez be, parrokien eta pastoral barrutien aldeko gertuko eta zerbitzuzko hartu-emonean.
5. Euren eskualdean jarduera ebanjelizatzaileak garatzen dabenezan osoko heziketaz arduratu, kasu bakoitxerako baliabide egokiak jarritz. Normalean, Eleizbarrutiko heziketa-zerbitzuaren laguntza jasoko da.
6. Aholkularitza emon, Gotzainak edo eleizbarrutiko beste erakunde batzuek euren eskumeneko arloari buruz aurkeztutako kontuetan.
7. Eleizbarrutiko alkartean sentiberatasuna biztu ebanjelizazioaren arloan antzematen diran beharrianen inguruan.
8. Jarduera euren pastoral eremuko mobimentu eta alkarreakaz eta gainerako Ordezkaritzen ekintzagaz koordinatu.
9. Eleizbarrutiko edo eleizbarruti arteko beste erakunde batzukazko hartu-emon arina izan.
10. Jagoken kasuetan, Ordezkariek eta Zuzendariak aholkua emon behar deuse Gotzainari eragiten deutesien erakunde publikoakaz ezarritako akordioek araututako karguen izendapenean, eta hartu-emonia izango dabe egokitzen josten dan erakunde zilakaz.

2. KAPITULUA: ORDEZKARITZEN, IDAZKARITZEN ETA SAILEN EGITURAKETA

26. ARTIKULUA

§ 1. LITURGIARAKO ELEIZBARRUTIKO ORDEZKARITZAREN helburua, Vatikanoko II. Kontzilioaren arabera (SC, 45), Gotzainaren agintepean jarduera liturgikoa suspertzea da, fedearen ospakizun egokia bultzatuz, beronen bitartez Kristoren jarduera salbatzailea gaurkotu daiten.

§ 2. Liturgiarako Eleizbarrutiko Ordezkaritzaren funtsezko egitekoa da Eleizbarrutiko bizitza liturgikoa zuzentzea, suspertzea eta jagotea, eleiztarren partaidetza kontziente, elizkoi eta aktiboa bultzatuz, Eleizako liturgi diziplinaren arabera, Horrek, batez be, zera eskatzen dau:

1. Gotzainaren ministerioan lagundu, liturgian hezteko eta informatzeko eta bertan gordeten diran altxor guztiak antzeman.
2. Eleizbarrutiko liturgi bizitza suspertzeko eta bizitzeko argibideak aurkeztu Gotzainari.
3. Era bateko eta besteko lagungarriak eskaini abadeei, diakonoei, lekaimeei, lekaideei eta laikoei.
4. Aldian-aldian, burututako jarduerak aztertu, ebaluazioa egin eta hobetzeko.
5. Gotzainaren xedapenak ezagutzera emon eta zabaldu Pastoral Liturgikoari jagokonez.
6. Gaikuntzaz gaurkotzeaz eta heziketaz arduratu, fededunentzat hausnarketarako topaketak eta gai liturgikoei buruzko ikastaroak antolatuz, alkarteko jarduera liturgikoan laguntzeko gauza izan daitezkan.
7. Apostolutza liturgikoa suspertze aldera, Eleizbarrutian sortu daitekezan ekimenak babestu eta bultzatu (ik. I OE 47).
8. Parrokietan batzordeak sortzea eragin eta eratzen lagundu, euren alkarteen eta alkarteko liturgiaren suspertzaile izan daitezkan.
9. Lagungarriak prestatu Jaunaren eguneko eleizkizunetarako. Zerbitzu honen koordinazioaz arduratu eta garatzen dabenei heziketa eta laguntasuna eskaini, Pastoral Barrutiagaz eta jagokon Gotzain Bikarioagaz lankidetzan.

§ 3. Liturgiarako Eleizbarrutiko Ordezkaritzak aholku emongo deutse Lurraldeetako Gotzain Bikarioei euren Bikaritzetako liturgi egitasmo pastoralak egiterakoan.

27. ARTIKULUA

§ 1. **EBANJELIZAZINO ETA KATEKESIRAKO ELEIZBARRUTIKO ORDEZKARITZAK**, Kuria pastora-leko erakunde lez, lankidetzaz eraginkorra dau Gotzainaren konpromiso pastoralean eta bere ardurapean, bere Gotzain Kontseiluagaz batera, Eleizaren Ebanjelioari, Tradizioari eta Irakaspeni leialtasuna erakutsiz, Eleizbarrutiko argibide eta egitasmoak bere eginez, gainerako pastoral erakundeakaz koordinatuz, proposamen onargarriak eginez eta euren bizigiroetan txertatuta, bere jardueraren jasotzaile diran personengandik hurrant egonez.

§ 2. Zerbitzu hurko eta probetxugarria eskaintzen deutso Eleizbarruti osoari eta batez be ondorengo egitekoak dabezan lurraldeetako pastoral errealidadeei:

1. Ebanjelioa iragarri hon barri ez daukienei.
2. Fedean sarbidea emon iragarpena bere egin eta bila diharduanari.
3. Fededunei laguntza pastoral emon euren bizitzan.

§ 3. Pastoral errealidade desbardinakaz alkarlanean jarduten dau Eleizaren misino bakarrean, hau da ebanjelizazinoan, alderdi desbardinak landuz:

1. Barri Onaren iragarpena.
2. Kristinau sarbidea eta katekumenotza.
3. Fede hezkuntza eta heldutasuna bizitzako adin, eremu eta egoera desbardinetan.
4. Lekukotasun sinisteduna.
5. Bokazino laguntasuna.
6. Kristinau alkartearen eraketa

§ 4. Bere zerbitzua eta jarduera garatzeko bitartekoak:

1. Jarraibideak eta hausnarketak, prozesuak eta ekintzak, baliabideak eta lagungarriak, laguntasuna eta aholkularitza eskaini.
2. Eskaerak, ekimenak eta proposamenak jaso.
3. Lurraldeetako koordinazino-eremuetatik hurrant egon.
4. Eleizbarrutiko gainerako erakundeakaz koordinatu.
5. Beste Eleizbarruti batzuetako eta Gotzainen Batzarreko antzeko zerbitzua-kaz hartu-emona izan.

28. ARTIKULUA

§ 1. **KARIDADE ETA ZUZENTASUNERAKO ELEIZBARRUTIKO ORDEZKARITZAK**, Ebanjelioan eta Eleizaren Doktrina Sozialean oinarrituz, Gotzaina eta bere Gotzain Kontseilua zerbitzatzen ditu eta baita bikaritzak, pastoral barrutiak, parrokiak, mobimentuak, komunitadeak, alkarreak eta kristinau herria be, helburuok jadesteko:

1. Gizartearen oinarritzat jotako giza duintasunari jagokozan gaietan gizarte sentiberatasun handiagoa eragin.
2. Ikuspuntu ebanjelikotik, zuzentasun eta partaidetza handiagoa ekarriko dituan gizartearen eratzeko eraldaketan lagundu.
3. Gizon eta emakumeei eta, batez be gizatalderik behartsuenenei Jaungoikoak deutesen lehentasunezko maitasuna agertzera emongo dauan Eleiza hurkoa-goa eta gizartearen txertatuagoa suspertu.

§ 2. Horretarako,

1. Bidebakokeriaren eraginpean dagozan gizabanako eta gizataldeen partaidetza ahalbideratu kristinau alkartean.
2. Eleizaren Doktrina Sozialari lotuta, heziketa eta hedapena suspertzen dau.
3. Eleizbarrutiko pastoralgintza laguntzen eta koordinatzen dau gizarte-keridade eremuan.
4. Ondasunen kristinau banaketa eta behartsuen aldeko alkartasuna suspertzen dau.
5. Bakezko bizikidetasunerako balioak bultzatzen ditu.
6. Salaketa profetikorako jarduerak burutzen ditu Ebanjelioa oinarritzat hartuz.
7. Beste erakunde eta talde batzuk batera jarduten dau giza duintasuna suspertzearen alde.
8. Sortu daitekezan pobretasun eta bazterketazko errealidade barriez arduratzen da, gizarte eta eleiz egoerea kontuan hartuta, eta pastoral arreta bereziko eremu barriak zabaltzeko aukerea aztertzen dau.

§ 3. Ordezkaritzak eremu honetan esku hartzen daben beste eleiz erakunde batzuk, batez be berari lotuta dagozan Caritas eta Misinoak erakundeakaz, koordinatuta garatzen dau bere misinoa.

29. ARTIKULUA

§ 1. **MISINOETARAKO ELEIZBARRUTIKO ORDEZKARITZAREN** berriazko misinoa, Gotzainari eta bere Gotzain Kontseiluari Eleizbarrutiko misiolari sustapenean laguntzea da.

§ 2. Misiolari sustapenak beragaz dakar:

1. Eleizbarrutiko eleiztar eta taldeen artean misiolari sen unibersala bultzatu, bideratu eta hedatu, kristinau alderdi hau bihotz-zabaltasunez beteteko ezinbesteko eragile eta bitartekoakaz, eleizbarrutiko pastoralgintza orokorrean txertatuz.
2. Misiolari bokazinoak sorrarazo abadeen, diakonoen, biziera sagaratukoan eta laikoan artean.

3. Misiolari sustapen orokorra programatu.
4. Eleizbarrutiko parrokia, pastoral barruti eta bikaritzetan misiolari taldeen sorrera bultzatu, Misinoari eta Hirugarren Munduari buruzko heziketa eta informazioa eskainiz.
5. Misiolari sustapen orokorra koordinatu eleizbarrutiko Kuriako gainerako erakundeen jarduerakaz.
6. Eleizbarrutian, Aita Santuaren ardurapeko Misino Egintzak (OMP eta DOMUND) bultzatu.

§ 3. Eleizen arteko lankidetzaren arloan, hauxe da egitekoa:

1. Aita Santuaren ardurapeko Misino Egintzak eta kanpainak bultzatu: DOMUND, Ume misiolariak eta Sorterriko bokazinoak.
2. Aparteko arreta eskaini beste Eleiza batzuen zerbitzura dagozan misiolariei OCSHA, OCASHA, IEME edo *Fide Donum* erakundeen bitartez.
3. Koordinazio egokia izan Donostia eta Gasteiz Eleizbarrutiakaz Eleizbarrutietako Misinoen arretan.

30. ARTIKULUA

§ 1. **EKUMENISMO ETA ELEIZEN ARTEKO HARTU-EMONERAKO ELEIZBARRUTIKO ORDEZKARITZAREN** eginkizun nagusia, Eleizbarrutian sen ekumenikoa hedatzea da. Hau da, katolikuen artean kristinau guztiak barriro be batasunera ekartea lortu gura dauan mobimentu ekumenikoa suspertu eta zuzentzea dau xedetzat, Eleizari jagokolako, Kristoren borondatez, dalako batasun hori eragitea.

§2. Ordezkaritza hau, gainera, Eleizbarrutian dagozan erlijino ez kristinauakaz alkarrizketan jarduteaz be arduratuko da.

31. ARTIKULUA

MINISTERIO ORDENATURAKO IDAZKARITZAK, Gotzainagaz eta Gotzain Kontseiluagaz batera, laguntza pertsonala eskaintzen deutse eleizbarrutiko eta eleizbarrutitik kanpoko abadeei eta diakonoei, batez alderdi gizatiar eta espiritualari jagokonez; erretiroak, gogo jardunak eta abadeei jagoken beste hainbat jarduera antolatzen dau; abadeen egoitzak koordinatzen eta ikuskatzen ditu; abade eta diakonoen beharrian pertsonalez —familia, osasuna— arduratzen da eta baita abadeen etenbako heziketaz be. Azken alderdi hau dala-eta, Eleizbarrutian heziketarako dagozan zentro desbardin laguntza jaso daike.

32. ARTIKULUA

LAIKOTZARAKO IDAZKARITZAREN egitekoak dira:

1. Pastoral mandatua daben laikoak zuzendu eta laguntasuna emon.
2. Pastoral manatua daben laikoen bereizketa, mandatu, laguntasun eta heziketa prozesuak bermatu, Gotzainaren eta Gotzain Kontseiluaren gainbegiratzegaz.
3. Prozesu horreen garapenerako behar dan beste dinamika, eremu eta baliabide sortu.
4. Fededunen alkarteak, mobimentuak eta komunitadeak sortu eta suspertu eta euron pastoral jarduerak Eleizbarrutiko jarduerak orokorragaz koordinatu.
5. Ekintza Katolikua, orokorra zein espezializatua, bereziki bultzatu, Gotzainagaz aparteko loturea dauan mobimentuak lez, gure lekuko Eleizaren misino ebanjelizatzaileari hobeto erantzuteko.

33. ARTIKULUA

KLAUSURAKO MONASTERIOETARAKO IDAZKARITZAK eleizbarrutiko Gotzainak beren beregi eskatzen deusazan egitekoak izango ditu. Zuzendariak, Gotzainaren izenean, eta horretarako ezinbesteko eskumenak dituala, izango dau normalean hartu-emonak Eleizbarrutian dagozan monasterioakaz eta honeetan gertatzen diran arazoak edo gorabeherak konponduko ditu, Eleizbarrutiko gotzainaren arauak eta jarraibideak kontuan hartuta.

34. ARTIKULUA

§ 1. **KOMUNIKAZINORAKO ELEIZBARRUTIKO SAILA** Eleizbarrutian, eta komunikazio sozial eta instituzionalari eta *mass media* dalakoan agertzeari lotuta, komunikazioa suspertzea eta koordinatzea jagokon erakundea da.

§ 2. Zerbitzu honen egitekoak dira:

1. Eleizaren mezuaren eta Eleizbarrutiaren jarduerak eta komunikazioen presentzia leial eta duina ahalbideratu eta gehitu komunikabideetan.
2. Eleizbarrutiaren titulartasuneko irratietan azaldu eta euren programazio erlijiosoaren planifikazioan lagundu, eta zuzendaritzari eta kazetari-taldee euren Idearioa beteten lagundu.

3. Eleizbarrutiko gotzainari eta eleizbarrutiko erakundeei aholku emon komunikabideetan azaltzeari jagokonez.
4. Barne komunikazinoa bultzatu kristinau alkartean, alkartasuna, ardurakidetasuna eta eretxi publikoa suspertuz.
5. Eleizbarrutiko Aldizkari Nagusia argitaratu Kantzelariaren menpe, eta interes orokorreko eleizbarrutiko beste agerkari batzuk, eta eleizbarrutiko beste erakunde eta mobimentu batzuei aholku emon.
6. Gotzainari jakin behar dituan eleizako eta gizarteko gertaerei eta ekitaldiei buruzko informazinoa emon.
7. Eleizbarrutiko Kuriari eta beste erakunde batzuei, esate baterako eleizbarrutiko kontseilu, mobimentu apostoliko eta alkarteei, aholku emon komunikazinoaren arloan.
8. Parrokietan, eskualdeetan eta bikaritzetan, alkarteetan barne komunikazinoa suspertuko daben batzorde informatiboak sortzeko argibideak emon.
9. Komunikazinoaren erabiltzaileen prestakuntza suspertu, batez be pastoral eragileengan eta eleiz alkarte eta mobimentu apostolikoetan, gizarte eskoletan eta beste batzuetan dagozan personengan arreta jarritz.
10. Koordinazinoa eta lankidetzak, informazinoari zein baterako egitasmoei jagokonez, Iruña, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Eleizbarrutietako Eleizbarruti arteko Idazkaritzan, Gizarte Komunikabideetarako Espainiako Gotzainen Batzarreko Idazkaritzagaz eta, jagokonean, Eleizako beste erakunde eta komunikabide batzukaz.
11. Aldian-aldian, Eleizbarrutiko komunikazino-egitasmoa eratu, eleizbarrutiko pastoral lehentasunak oinarritzat hartuta, eta kursoz kurso jarduerak programatu.
12. Eleizbarrutiko zein eleizbarrutitik kanpoko komunikabideakazko hartu-emon egonkorra suspertu, esparru desbardinetan: prentsa, irratia, telebista, internet eta kideko hedabideak.
13. Eleizbarrutiko web orrialdean Sailari jagokozan komunikazino-gaiak kudeatu, eta Idazkaritza Nagusiagaz alkarlanean jardun dalako orrialde horren diseinuan eta funtzionaltasunetan.

35. ARTIKULUA

§ 1. **HEZKUNTZARAKO ELEIZBARRUTIKO SAILA**, eleizbarrutiko Kuriako erakundea da eta Eleizbarruti osoan hezkuntza pastoralak bideratzea, suspertzea eta koordinatzea da bere eginkizun nagusia.

§ 2. Honeek litzatekez bere erantzukizunak eta jarduera-eremuak:

1. Erlijinoko irakasleak.
2. Pastoral taldeak eleizbarrutiko ikastetxeetan.
3. Eskola katolikuagazko hartu-emonak.
4. Hezkuntzaren arloko Administrazioagazko eta erakunde zibilakazko hartu-emonak.

§ 3. Sail honetako Zuzendaria Ebanjelizazio eta Katekesirako Ordezkaritzako kide izango da eta lotura estuan jardungo dau 'Antonio Añoveros' Eleizbarrutiko Ikastetxeen Fundazio Kanoniko Autonomoko Zuzendari Nagusiagaz.

§ 4. Sail honek hartu-emonak eta alkarlana suspertuko dau Bilbao, Donostia eta Gasteizko Eleizbarrutietako Eleizbarruti arteko Hezkuntzarako Batzordeagaz eta, guttien intereseko gaietarako, Iruñekoagaz. Era berean, lankidetzan jardungo dau Espainiako Gotzainen Batzarreko Irakaskuntzarako Batzordeagaz.

36. ARTIKULUA

§ 1. Kultura **ARLOKO GAI ETA ONDASUNEN ELEIZBARRUTIKO SAILAREN** misinoa, hizkuntza-eremua, literaturaren, arte ederren eta antzekoen arloan Eleizbarrutian dauan presentziari lotutako gaien sustapena, koordinazioa eta orientazioa da eta baita eleizbarrutiko ondare historiko eta kulturala bere alderdi desbardinatzen kudeatzea: artea, monumentuak, agiriak, bibliografia eta immaterialak.

§ 2. Bikarritza Nagusiaren bitartez, lotura estuan jardungo dau Kuria pastoraleko Ordezkaritzakaz, Eleizbarrutiak bere jarduera ebanjelizatzailea Kulturaren arloan garatu daian.

§ 3. Hartu-emon egonkorra izango dau lehen aitaturako arloetan jarduerak garatzen dabean eleizbarrutiko erakunde autonomiakaz, euren arteko koordinazioa ahalbideratuz baina erakunde horreen gaineko aginte-eremua barik, bakoitza bere estatutuen eta gobernu-eremuaren arabera gobernatuko dalarik.

§ 4. Bereziki zainduko ditu administrazio publiko desbardinakazko hartu-emonak, eurekin ahalik eta lankidetzan eta koordinaziorik onena izateko, Vatikanoren eta Estatu espainiarraren arteko Kultura Gaiei buruzko Hitzarmenean jasotakoa eleizbarrutiaren eremuan gauzatzeko eta garatzeko balioko dabean akordioak, hitzarmenak eta mekanismoak ezarri ahal izateko. Horretarako, hartu-emonak izango dau eta kontsultak egingo ditu administrazio publikoen erabagi eta jardueren eragina izan daikien eleizbarrutiko erakundeakaz.

§ 5. § 1ean aitaturako eremuetan jarduten dabean esparru zibileko erakunde kulturalakazko hartu-emonak suspertuko dau.

§ 6. Eleizbarrutiko ondare historiko eta kulturala osatzen daben ondasun kulturaleri jagokenez, ondasun horreen eremu-titulartasuna erabat errespetatuz garatuko da misinoa. Esparru honetan, aholkularitza lanak egingo ditu, bai kultura ondarearen osoko kudeaketari, zaintzeari eta hedapenari buruzko egitasmo eta planak garatzeko eta bai parroketan edo eleizbarrutiko beste erakunde batzuetan garatu behar izango diran ekintza zehatzak gauzatzeko be.

§ 7. Zuzendaria izango da sail honetako buru. Ondorengo zerbitzu eta erakundeak izango ditu bere egitekoa garatzeko eta berari jagoko eurok ikuskatzea eta koordinatzea:

1. Monumentu-ondarearen zaharbarritu eta zaintzeko Zerbitzua.
2. Eleiz Museoa.
3. Bizkaiko Eleizaren Histori Artxiboa eta, Kantzelaritzagaz lankidetzan, Artxi-boen Eleizbarrutiko Zerbitzua.
4. Organu eta harmoniumen Batzordea.
5. Eleizbarrutiko Liburutegia, bibliografia-ondarea kudeatzeko egitekoagaz. Eleizbarrutiko beste erakunde batzuetako liburutegiakaz koordinatuta egongo da.

§ 8. Kultura arloko Gai eta Ondasunen Sail honek Batzorde Aholku-emoilea izango dau aurreko paragrafoan zehaztutako zerbitzu eta erakundeetako eta Artikulu honen § 3an aitatutako eleizbarrutiko erakunde autonomoetako arduradunenez osatuta.

§ 9. 22, § 7 Artikuluan jasotakoaren arabera eratuko dan Sain honen Arautegiak osatzen daben zerbitzu eta erakunde desbardinenez arautegi eta araudiak buztartuko ditu.

§ 10. Eleizbarrutiz gaindiko eremuan, hartu-emonak izango ditu Kultura Ondarerako Gotzain Batzordeagaz eta Iruña, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Eleizbarrutietako edo, jagokonean, beste eleizbarruti batzuetako, Eleizbarruti arteko Idazkaritzan ezarritako lan-talde edo batzordeetako kide izango da.

37. ARTIKULUA

§ 1. **EUSKERAREN ARLOKO ELEIZBARRUTIKO SAILA.** Eleizbarrutiko Kuriako erakunde hau bertako sail guztien esanetara dago lagungarri pastoralen eta Kuriako agirien itzulpen eta prestaketari jagokonez. Zuzendaria izango da buru eta hau *Euskal balia bideak* lantaldeko kidea izango da.

§ 2. Euskeraren eta kulturaren arloko eleizbarrutiko erakundeakaz eta Iruña, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Eleizbarrutietako Eleizbarruti arteko Idazkaritzako an-

tzeko erakundeakaz lankidetzan jardungo dau. Testu liturgikoen itzulpenetarako, aurreko eleizbarrutiakaz ganera, Baionakoagaz be alkarlanean arituko da.

§ 3. Sail honek euskeraren arloko erakunde zibilakazko hartu-emonak susper-tuko ditu.

3. KAPITULUA: ORDEZKARITZEN, IDAZKARITZEN ETA SAILEN BARNE ANTOLAKUNTZA

38. ARTIKULUA

§ 1. Ordezkaritza, Idazkaritza eta Sail bakotxak bere Arautegia prestatuko dau; gero, Gotzain Kontseiluaren eretxia entzunda, Gotzainak onartu beharko dau.

§ 2. Dalako Arautegi hori prestatzeko, Kuriaren beraren eta Kuriako beste erakunde batzuen zerbitzu juridikoen laguntza teknikoa jasoko da.

§ 3. Arautegiak, gitxienez, honako puntu nagusiok jasoko ditu:

1. Ordezkaritza, Idazkaritza edo Zerbitzuaren egitekoak, helburu bereziak, lan iraukorak edo jagokozan eremuak.
2. Ezinbesteko antolakuntza, funtzionamentua, organigrama eta beharginak.
3. Bikarritza, pastoral barruti, parrokia, mobimentu, komunitade eta alkarteak lako eleizbarrutiko beste erakunde batzukazko hartu-emonak.

39. ARTIKULUA

§ 1. Ordezkaritzak, Idazkaritzak eta Sailak, agindutako egitekoaren arabera eta, beti be, Eleizbarrutiak giza baliabideei eta baliabide materialei jagokenez dituan aukeren barruan, beharrezkoak diran pertonez eta erakundeez osatuta egongo dira.

§ 2. Ezinbestekoa da Ordezkaritzen, Idazkaritzen eta Sailen eta lurraldeetako eremuen arteko lotura zuzena.

40. ARTIKULUA

§ 1. Komunikazinarako Eleizbarrutiko Sailak informazino-tresna eratuko dau, danentzat, bakarra eta aldizkakoa, Ordezkaritza, Idazkaritza eta Sailetarako, eleizbarrutiko eremu guztietara hedatuz.

§ 2. Ordezkaritza, Idazkaritza eta Sail bakotzak, eleizbarrutiko Kuriako zerbitzu teknikoakaz alkarlanean eta horretarako jarritako erespideen arabera, bere eremu opioa izango eta kudeatuko eta koordinatuko dau Eleizbarrutiko web orrialdean.

IV. TITULUA

KANTZELARITZA

41. ARTIKULUA

§ 1. Gotzainak, Eleizako Zuzenbide orokorraren arabera, dekretuz izendatuko dau Kantzelaria eleizbarrutiko Kuriako Kantzelaritzako buru lez, ondorengo honeek diralarik beren-beregi bere karguari lotutako egitekoak:

1. Kuriako idazki-jarduerak idatzi, bialdu eta artxibatu; Kurian bertan sortutakoak zein bertara zuzendutakoak.
2. Kuriako Idazkari eta Notario Nagusia izan, eragin juridikoak izan daikezan egintzetan sinadurak berretsiz; guzti horren barri emon beharko leuskie Bikario Nagusiari eta Kuriako Moderatzaileari.
3. Artxibo eta erregistroei buruzko legeria betetea jagon eta, batez be, Kuriako Artxibo orokorreko giltza gorde, bertara sartzeko baimena emon eta, Gotzainagaz ego Kuriako Moderatzaileagaz edo sail honen ardurea bere gain hartzen dauan Bikario Nagusiagaz batera, bertatik agiriak aterateko baimena emon (ik. 486-491 kk.).
4. Erregu-egile izan Vatikanoaren aurrean.

§ 2. Gotzainak beharrezkotzat jotzen badau, Kantzelariordea izendatuko dau Kantzelaria ordezkatu daian eta honi lagundu deion beronek agintzen deutzazan gai guztietan, ohikotasunez edo ezohikotasunez (ikus 482 k., § 22 eta 3).

§ 3. Kantzelariak eta Kantzelariordeak ganera, Notarioak izango dira eta euren idazki edo sinadurak edozein jarduerari lotutako fede publikoa emongo dau, bai auzi judizialerako eta bai auzi edo gai jakin bati lotutako jarduererako be.

42. ARTIKULUA

Ezkontzetarako Notaritzak, Kantzelariaren menpe, honetaz arduratzen da:

1. Gotzainak edo Bikario Nagusiak emon behar dituan dispentsak, lizentziak, baliozkotzeak eta baimenak bideratu.

2. Beste Eleizbarruti batzuen esku-hartzeagaz egin behar diran ezkontza-agiriak bideratu.
3. Parrokiei aholku eta laguntza emon ezkontza-agirien eta beste edozein sakramentu-agiriren egintzan.

43. ARTIKULUA

Kantzelaria edo, jagokonean, Kantzelariordea, ondorengo zerbitzuez arduratuko dira zuzenean:

1. Kuriako erakundeen batzar-agirien artxiboa, artxibatutako dokumentazioari jagokon aurkibideagaz.
2. Sakramentu-agirien artxiboa.
3. Eleizak artxibo eta erregistroei buruz dauan legeria Eleizbarruti osoan bete-tea jagon.
4. Artxiboen Eleizbarrutiko Zerbitzua.
5. Histori Artxiboagazko komunikazioa. Kontserbazino iraunkorrerako dokumentuak zeintzuk diran ebazteko erespideak ezarriko dira eta kontserbazino-egutegiak eratuko dira, artxiboen kontserbazinorako erespide egokien arabera. Dokumentazioa kontsultatzeko eta eskuratzeko, Eleizaren Artxi-boetarako Arautegiko arau eta argibideak eta eragina izan daikeen legeria zibilekoak kontuan hartuko dira. Datu pertsonalak dabezan dokumentuei jagokenez, jagokon personaren baimenagaz baino ezingo dira kontsultatu. Hirurogeta hamabost urtetik beherako gainerako dokumentuetan eskuragarritasun-azterketak egingo dira eta kasu batzuetan Gotzainak beren-beregi emon beharko dau baimena.
6. Kuriako erakundeei edo, jagoken karguaren arabera, bertako kide diranei zuzendutako agiri, jakinarazpen, ofizio, gutun, e.a., orori jagokon idazpenaren Erregistro orokorra.
7. Kuriako erakunde, jarduera edo kideei buruzko bidezko datu eta argibideak emon eskatzen daben persona edo erakundeei.
8. Eleizbarrutiko Aldizkari Nagusia zuzendu.

VII. TITULUA

IDAZKARITZA NAGUSIA

44. ARTIKULUA

Idazkari Nagusiak, gobernu-ahalmen barik, egiteko honeek izango ditu:

1. Eleizbarrutiko Kuriaren eta bertan txertatutako eleizbarrutiko beste erakunde batzuen zerbitzura dagozan eraikinetako espazioen mantenua, erabilerara, antolamendua, hornikuntza eta kudeaketa.
2. Kuriako posta eta bestelako dokumentazioa kudeatu, bideratu eta jaso.
Corresponderá a esta Comisión, de manera especial, el establecimiento de los criterios de selección y de formación de personal, coherentes con la misión educativa y pastoral de los centros diocesanos de enseñanza, así como garantizar, por los mecanismos que tenga a bien establecer, la aplicación práctica de tales criterios. A estos efectos, la Comisión de Directores trabajará estrechamente con la Comisión, que se define en el punto siguiente.

5.- Comisión de Pastoral.

Para velar de forma especial por la consecución de la obra específica que se le encomienda, que es la formación integral de los niños, jóvenes y adultos desde la concepción del Proyecto Educativo Diocesano, el Patronato creará la Comisión de Pastoral, de la que será miembro nato la persona que ejerza la Dirección del Departamento de Educación del Obispado de Bilbao.

Esta Comisión tendrá como fines principales:

- a) promover y coordinar los Departamentos de Pastoral de los Centros Educativos de la Fundación,
- b) promover la identidad cristiana y la identificación con el Proyecto Educativo Diocesano en todas las personas que trabajen en los Centros Educativos de la Fundación.

6.- Comisión de Formación Profesional.

En el caso de que haya tres o más Centros de Formación Profesional en la Diócesis de Bilbao, el Patronato creará la Comisión de Formación Profesional, con el fin específico de velar por las necesidades propias de dicha Formación Profesional, proponiendo y, en su caso, desarrollando cuantas acciones estimen oportunas a tal fin. Serán miembros natos de esta Comisión las personas que ejerzan la dirección de cada Centro de Formación Profesional.

7.- El Patronato aprobará el Reglamento y Normas de Funcionamiento de las Comisiones Especiales, que le serán presentados por la Comisión Ejecutiva, previa aprobación por parte de esta de la propuesta que le sea sometida por quien ejerza la Dirección General. Igualmente estudiará y, en su caso, aprobará la propuesta de la Comisión Ejecutiva referente al mejor modo de garantizar la mejor calidad en el desempeño de las funciones pedagógica y de administración económica por parte de los centros de la Fundación.

CAPÍTULO II

LOS ÓRGANOS UNIPERSONALES

ARTÍCULO 15º.- PRESIDENTE

- 1.- El Presidente Nato de la Fundación es el Obispo de Bilbao.
- 2.- Son funciones del Presidente:
 - Representar a la Fundación ante toda clase de personas o entidades físicas y jurídicas, públicas y privadas y ante toda clase de autoridades y en todos los actos públicos o privados; y, a todos los efectos, en aquellos en los que tenga que intervenir con plena eficacia jurídica.
 - Convocar y presidir las reuniones del Patronato, así como —por medio del Secretario— establecer el Orden del Día de las reuniones de este órgano.
 - Dirigir el orden y debates en las sesiones del Patronato y coordinar la misión de los miembros del Patronato.

- Autorizar con su Visto Bueno los acuerdos del Patronato y demás escritos, certificados, actas, balances, memorias y nombramientos que sean expedidos por el Secretario, y así lo requieran.
- Autorizar previamente la realización de cuantos informes y dictámenes hayan de presentarse ante el Patronato o la Comisión Ejecutiva.
- Celebrar en nombre de la Fundación, de conformidad con lo establecido en estos Estatutos, toda suerte de contratos, convenios y operaciones civiles mercantiles, administrativos o de otra naturaleza, así como otorgar poderes a abogados y procuradores.
- Cuidar el cumplimiento de los Estatutos y de los fines y objetivos de la Fundación, así como velar para que se lleven a efecto los acuerdos adoptados.
- Invitar a las sesiones de los órganos de gobierno a cualquier persona que, por la naturaleza de los asuntos a tratar, deba ser consultada.
- Realizar a favor de la Fundación cualquier otra gestión o misión que resulte del contenido de estos Estatutos o le encomiende el Patronato.
- Delegar de forma expresa y de modo puntual o habitual algunas de estas funciones en el Vicepresidente, o en otro miembro del Patronato. En caso de que la delegación sea habitual, habrá de contar con la aprobación del Patronato.

ARTÍCULO 16º.- VICEPRESIDENTE

1.- Será Vicepresidente de la Fundación el Vicario General que el Obispo designe a tal fin.

2.- Tendrá como función principal la de sustituir al Presidente en sus ausencias, asumiendo las funciones propias del Presidente. A tal fin, la ausencia del Presidente será comunicada de manera eficaz por el propio Presidente.

3.- El Presidente podrá, de acuerdo con lo establecido en estos Estatutos y, especialmente, en el artículo anterior, encomendar al Vicepresidente alguna de sus funciones.

ARTÍCULO 17º.- SECRETARIO

1.- El Secretario o Secretaria es nombrado por el Patronato, pudiendo ser o no miembro del mismo. Si no fuese Patrono, asistirá a las reuniones del Patronato con voz pero sin voto.

2.- Realizará las siguientes funciones:

- Elaborar el Orden del Día y convocar las reuniones del Patronato, por orden del Presidente y siguiendo sus indicaciones, y redactar las actas de las reuniones del Patronato.
- Librar certificaciones de los acuerdos, así como de cualquier otra documentación de la Fundación, recabando para ello el Vº Bº del Presidente o del miembro del Patronato que cuente con su delegación para ello.
- Llevar los Libros y la correspondencia de la Fundación y despachar los asuntos que se le encomienden.
- Cualquiera otra que resulte del contexto de estos Estatutos, o le sea encomendada por los órganos de gobierno de la Fundación.

ARTÍCULO 18º.- VOCALES

1.- Los Patronos que no ostenten los cargos de Presidente, Vicepresidente, Secretario y Dirección General serán Vocales del Patronato, durante el periodo estatutario para el que son nombrados.

2.- Los Vocales tendrán las siguientes funciones:

- Asistir a cuantas reuniones sean convocadas por el Patronato.
- Proponer al Patronato cuantas iniciativas estimen convenientes para el mejor cumplimiento de los fines de la Fundación.
- Representar a la Fundación en los actos y asuntos que, por delegación, les sean encomendados por el Presidente o por el Patronato.

ARTÍCULO 19º.- DIRECTOR GENERAL

1.- Corresponde al Patronato la determinación de la persona que ejerza la Dirección General de la Fundación, que, consecuentemente, será nombrada y contratada por el Presidente, por un plazo de cinco años, que podrá ser renovado, por idéntico período de cinco años, cuantas veces se desee.

2.- La Dirección General será de naturaleza ejecutiva y corresponderán a quien la ejerza las funciones de Dirección y Coordinación de las actividades de la Fundación, que hayan sido aprobadas por el Patronato y, de modo especial, las relacionadas con la finalidad principal de la Fundación, expresada en el Artículo 2 de estos estatutos, que es la de “promover en sus beneficiarios la enseñanza confesional, conforme a los principios y valores propios de la doctrina de la Iglesia Católica”.

3.- El Director o Directora General representará a la Fundación en los actos propios de su cargo, a cuyos efectos el Patronato le concederá los poderes correspondientes.

4.- La persona que ejerza la Dirección General no tendrá facultades para disponer del patrimonio dotacional de la Fundación.

5.- Este cargo será retribuido.

6.- Quien ejerza la Dirección General rendirá cuenta puntual de las actividades de la Fundación al Patronato, propondrá y debatirá frente a ese órgano las iniciativas que considere oportunas y ejecutará las indicaciones y directrices que reciba del mismo.

7.- Corresponderá al Director o Directora General elaborar y presentar a la Comisión Ejecutiva para su posterior presentación y en su caso aprobación por el Patronato:

- El Plan de Actuación y los Presupuestos para el Ejercicio siguiente.
- Las cuentas Anuales, Balance y Cuenta de Ingresos y Gastos.
- La Memoria de las actividades del ejercicio e Informe sobre el Plan de Actuación.
- Estados Financieros y Liquidación del Presupuesto del ejercicio anterior.
- Cuantos asuntos le sean encomendados por el Patronato.

TÍTULO IV

ADMINISTRACIÓN DE BIENES Y FACULTADES DEL OBISPO DIOCESANO

ARTÍCULO 20º.- ADMINISTRACIÓN

Corresponde al Patronato realizar todos los actos de administración de los bienes de la Fundación; sin embargo, deberá obtener la licencia del Obispo Diocesano para realizar aquellos actos que sobrepasan los fines y el modo de la administración ordinaria. En el cumplimiento de estas funciones de administración se observarán las prescripciones canónicas establecidas para las Personas Jurídicas Públicas de la Iglesia (cfr. C.I.C. cc 1279 a 1289).

ARTÍCULO 21º.- CUENTAS, PLANES E INFORMES DE LA FUNDACIÓN

- 1.- La Comisión Ejecutiva elaborará cada año para su aprobación por el Patronato:
 - un Balance y Cuenta de Resultados referido al 31 de diciembre, y liquidación del presupuesto anterior;

- un estado demostrativo de la inversión del capital fundacional, con referencia a la misma fecha mencionada;
- una Memoria explicativa de las actividades y cumplimiento de los fines fundacionales, a la que se incorpore un Inventario de los elementos patrimoniales, y un Informe sobre el grado de cumplimiento del Plan de Actuación.
- Presupuestos y Plan de Actuación para el ejercicio siguiente.

2.- Las cuentas anuales y documentación contable se ajustarán a la normativa contable diocesana, habida cuenta de la legislación civil y canónica al respecto.

3.- Los precedentes documentos, una vez aprobados por el Patronato y observadas las prescripciones del canon 1284, serán elevados al Obispo Diocesano para su aprobación definitiva.

ARTÍCULO 22º.- ENAJENACIÓN DE BIENES

1.- El Patronato, observada la Legislación Canónica sobre Personas Jurídicas Públicas (cánones 1290 a 1298 del CIC), tiene plenas facultades de disposición sobre los bienes de la Fundación.

2.- Si en algún caso procediere la enajenación de bienes que integran el Patrimonio de la Fundación, se observarán las disposiciones canónicas sobre disposición de “Bienes Eclesiásticos”.

3.- También deberán observarse las mencionadas normas canónicas en todas aquellas operaciones que puedan perjudicar la situación patrimonial de la Fundación.

ARTÍCULO 23º.- FACULTADES DEL OBISPO DIOCESANO

Sin perjuicio de las facultades establecidas en las normas canónicas, generales o particulares, corresponde al Obispo Diocesano:

- El derecho de visita e inspección de todas las actividades de la Fundación.
- La aprobación definitiva de sus cuentas anuales.
- Exigir al Patronato información precisa de su gestión.
- Conceder la licencia necesaria para la enajenación de los bienes de la Fundación, de acuerdo con las normas canónicas y civiles.

TÍTULO V

MODIFICACIÓN DE ESTATUTOS Y DISOLUCIÓN

ARTÍCULO 24º.- MODIFICACIÓN DE ESTATUTOS

Los presentes estatutos podrán ser modificados en cualquier momento por decisión del Obispo Diocesano, por sí o a propuesta razonada del Patronato.

ARTÍCULO 25º.- DISOLUCIÓN DE LA FUNDACIÓN

1.- La Fundación se disolverá en caso de imposibilidad de cumplir con sus fines, cualquiera que sea la causa que la produzca.

En tal caso, la disolución se producirá de pleno derecho, pero la constatación de los hechos que la originan deberá ser comprobada por el Patronato, que lo someterá al Obispo Diocesano.

2.- También podrá ser disuelta por decisión del Obispo Diocesano, a tenor de la normativa canónica.

3.- En todo caso, la Fundación solo quedará disuelta por expreso Decreto del Obispo.

ARTÍCULO 26º.- DESTINO DE LOS BIENES

1.- En caso de disolución de la Fundación, corresponde al Patronato proponer al Obispo Diocesano la liquidación de su patrimonio.

2.- Los bienes resultantes de la liquidación de la Fundación serán destinados a la Diócesis de Bilbao.

Bilbao, treinta y uno de julio de dos mil quince.

Vistos y Aprobados

+Mario Iceta Gabicagogeascoa
Obispo de Bilbao

Doy fe

Félix Mª Alonso Alonso
Canciller

“ANTONIO AÑOVEROS ELEIZBARRUTIKO IKASTETXEEN FUNDAZINO KANONIKO AUTONOMOAREN” ESTATUTUAK

I. TITULUA

**IZENA, IZATASUNA, ERREGIMEN JURIDIKOA, HELBURUAK ETA FUNDAZINOAREN
JARDUERAK, IRAUNALDIA, HELBIDEA, LURRALDE-ESPARRUA, NORTASUN JURIDIKOA**

1. ARTIKULUA.- IZENA, IZATASUNA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

1.- “ANTONIO AÑOVEROS ELEIZBARRUTIKO IKASTETXEEN FUNDAZINO KANONIKO AUTONOMOIA” izenagaz, FUNDAZINO KANONIKO ATUONOMOA sortzen da Eleiza Katolikuaren Bilboko Eleizbarrutiaren aldetik, 114, § 1; 803 y 1303, § 1 kanonen eta Zuzenbide Kanonikoko Araudiaren eta Vatikanoren eta Estatu Espainiarraren arteko 1979.eko urtarrilaren 3ko Hitzarmenen babespean.

2.- Fundazioa, fundazioaren borondatez, honako estatutuon bidez, Zuzenbide Kanonikoko xedapenen eta indarrean dagozan gainerako xedapenen bidez zuzenduko da.

2. ARTIKULUA.- FUNDAZINOAREN HELBURUAK

1.- Eleiza Katolikuaren doktrinaren berariazko oinarri eta balioen arabera, bere onuradunen artean irakaskuntza konfesionala suspertzean datza “Antonio Añoveros Eleizbarrutiko Ikastetxeen Fundazio Kanoniko Autonomoaren” helburua.

- a) Helburu hau betete aldera, Patronatuak komenigarritzat jotzen dituan hezkuntza- eta heziketa-jarduerak garatuko ditu Fundazioak, eta ikastetxeen titulartasuna euki ahal izango dau. Ikastetxeek euren nortasun erlijioso katolikua beren-beregi agertuko dauan klausula izango dabe; Gotzainak berak izendatutako norbaiten gain eta bere menpe egongo da haren zuzendaritza; erregulartasunez emongo dabe irakaskuntza erlijioso katolikua ikasketen planen barruan, euren askatasuna gauzatuz aukeratu daben gurasoen, tutore legalen edo, adin nagusiko izanda, ikasleen euren eskariari erantzunez; laguntza erlijioso instituzionalizatua eskainiko dabe askatasunez jadesi gura daben ikasleentzat; eta kapera edo kultu-leku egokia izango dabe ekitaldi erlijiosoak ospatzeko.
- b) Fundazioaren eremu pertsonalaren onura ume eta gazteei zuzenduko jake batez be, gizarte eta ekonomia ikuspuntutik okerren dagozan gizataldeetako lehentasuna emonez eta euren osoko prestakuntza ahalbideratuz, gizarte gizatiarrago, askeago eta solidarioagoa lortzeko, oinarri ebanjelikoa-kaz eta munduaren eta bizitzaren kristinau ikuspegiagaz bat.

- c) Fundazioaren jarduerak Eleiza Katolikuak eta, zehatzago, Bilboko Eleizbarrutiak jarritako helburuak lortzeari begira garatuko dira beti be.

3. ARTIKULUA.- FUNDAZINOAREN JARDUERAK

1.- Aurreko artikuluan agindutako fundazioaren helburuaren arabera, eta berau betetearren, Fundazioak hezkuntza eta irakaskuntza arloko jarduerak garatuko ditu, eta ikastetxeen titulartasuna, zuzendaritza eta kudeaketa izango dau, Eleiza Katolikuari beren-beregi jagokozan oinarri eta balioen arabera.

2.- Fundazioak suspertutako ikastetxe guztiak eleizbarrutiko ikastetxetzat hartuko dira.

Besteak beste, Fundazioaren jarduerak izango dira:

2.1. Irakaskuntza arautua eta ez arautua emon Bere Patronatuak, ondorengoan arabera, erabagitako hezkuntza mailetan:

- hezkuntza-arloan indarrean dagoan legeria zibilaren arabera,
- eta, Bilboko Gotzainak eleizbarrutiko ikastetxeetarako onartuta, Fundazioaren berariazko izatasunari jagokozan oinarri erlijiosoen arabera.

2.2. Ikasleei eta euren familiei ondorengoia ekaini:

- Personaren osoko hezkuntza fedean, kristinau girotzearen bidez hezkuntza alkartean.
- “Erlijinoa eta Moral Katolikua” irakaspena.
- “Heziketa eta laguntza erlijiosorako jarduera osagarriak”.
- Eta pastoral ekintza jarraitua garatzen diran hezkuntza egiteko guztietan.

Guztia, askatasun erlijiosoaganako erabateko errespetuaz.

3.- Patronatuak aukeratutako hezkuntza-aukerei jagokenez, ikasleen aldeko zerbitzu eskuzabala izango dabe oinarritzat eta, horregaitik, lehentasuna emongo jake doako irakaskuntzei edo hezkuntza arloko Administrazioagaz hitzartutakoei eta, edozelan be, elitismoak edo dirua irabazteko asmoak saihestuko egingo dabez.

4.- Artikulu honen 2. zenbakian aitatutako jardueraz ganera, Fundazioak, Patronatuak komenigarritzat joten badau behintzat, kultura eta heziketa jarduerak, edo gizarte arloko jarduerak, garatu ahal izango ditu, jagokon lurralde-eremuan, Eleiza Katolikuaren erespideen haritik eta honeen arabera eta Bilboko Eleizbarrutiak arlo honetan proposatzen dituan argibideak aintzakotzat hartuta.

5.- Lanbide Heziketari jagokonez, ikasleei enpresa-sektoreak une bakoitzean aurkezten dituan beharrezko erantzuteko prestakuntza eskaintzea eta gaitasuna emotea izango da Fundazioaren ardura eta hareei lan munduan txertatzen lagunduko deute, euren osoko hezkuntzari uko egin barik.

6.- Fundazioak hezkuntza alkarteko kide guztien partaidetza solidarioa eskatuko dau irakaskuntza arloko kudeaketan herri legeriak ezarritako alderdietan eta baita “Eskola Katoliku” izatek eratorritakoetan eta, batez be, “Pastoral Hezitzailea” deritxanari lotutakoetan.

7.- Fundazioak, bere izaera kanonikoa eta eleizbarrutiko kidesuna kontuan hartuta, Bilboko Eleizbarrutiko ikastetxe guztien arteko alkartasuna suspertuko dau hezkuntza arloko pastorgintzako alderdiei jagokonez zein alderdi ekonomiko eta irakasleen prestakuntza eta garapen pedagogikoari jagokonez, beti be ikastetxe bakoitzaren autonomia zuzena errespetatuz, indarrean dagoan legeriaren barruan.

8.- Fundazioak ikastetxe bakoitzak kapera edo leku egokiren bat eukiko dau kultu katolikuko ospakizunetarako.

4. ARTIKULUA.- IRAUNALDIA, HELBIDEA, LURRALDE-ESPARRUA ETA JARDUERAREN HASIERA

1.- Fundazio hau betierekoa izango da (CICko 120 kanona).

2.- Virgen de Begoña nº 38, 48006, BILBAO da Fundazioaren helbidea.

3.- Fundazioak Bilboko Eleizbarrutiaren lurralde-esparruan garatuko ditu nagusiki bere jarduerak.

Jardueren oinarritzko garapen Bilboko Eleizbarrutiaren lurralde-esparruan izango bada be, horrek ez dau mugatuko Fundazioak dalako esparru horretatik kanpo, Estatu espainiarrean zein Europar Batasunean, eta baita muga honeetatik kanpo be, jarduteko dauan gaitasuna, araudi kanonikoa eta indarrean dagoan lege xedapenak bete ezker.

4.- Herri antolamentu espainiarrak, Estatu espainiarreko Justizia Misisterioko Erakunde Erlijiosoan erregistratuz, bere nortasun juridiko kanonikoa autortzeaz batera emongo deute hasierea Fundazioak bere jarduerari.

5. ARTIKULUA.- NORTASUN JURIDIKOA

1.- “ANTONIO AÑOVEROS ELEIZBARRUTIKO IKASTETXEEN FUNDAZINO AKADEMIA AUTONOMOA”, Eleiza Katolikuaren Persona Juridiko Publikoa da, jagokun Dekretuan Bilboko Gotzainak beren-beregi onartuta.

Horrexegaitik hain zuzen be, gaitasun legal osoa dau era guztietako egintza administratiboak jadesteko eta eukiteko, zergapetzeko, besterentzeko eta egiteko, eta zuzenbideko legezko edozein tituluren bidez jadetsitako era guztietako ondasun eta eskubideen ganeko nagusitasun zehatza, eta edozein eratan kontratatze eta hitz-mateko, eta bere interes eta eskubideen defentsan auzitan jarduteko eta epailearen aurrean agertzeko.

2.- Fundazino honek ez dau inoiz ez irabazi asmorik izango ezta helburu politikorik eukiko.

II. TITULUA

FUNDAZINOAREN ONDAREA: HORNIDURA-ONDAREA, HORNIDURA-ONDAREA EZ DANA, BALIABIDEEN ERABILERARAKO ARAUAK

6. ARTIKULUA.- HORNIDURA ETA HORNIDURA-ONDAREA

1.- Fundazinoaren hasierako hornidura da bere Hornidura-ondarea eta HOGETA HAMAR MILA EUROTAKOA da, kopuru hori osorik ordaindu izan dalarik.

2.- Hornidura-ondare hau gehitzeko aukerea dago horretarako emondako edo Patronatuak horretan erabilteko onartutako dohaintza, herentzia edo legaduakaz, eta helburu bera egozten jaken laguntasun, diru-laguntza edo eszedenteakaz.

3.- Fundazinoaren Hornidura osatzen daberen ondasun eta eskubideak “Eleizaren Ondasuntzat” eta Fundazinoaren Ondare Egonkortzat joko dira.

4.- Zeintzuk diran jakite aldera, Fundazinoak Hornidura-ondarea osatzen daberen ondasunen eta eskubideen katalogoa edo inbentario-liburua izango dau.

7. ARTIKULUA.- HORNIDURA-ONDAREA EZ DANA

1.- Fundazinoak Hezkuntza Administrazinotik dirutan edo beste edozein eratan “Hitzarmen” bidez jasoten dituan ekarpenak edo gurasoek, kuota erara edo beste prestazio batzuen bidez, edozein eratako jarduera osagarrietarako egin daikiezan beste ekarpen batzuk ez dira Fundazinoaren Hornidura-ondarean sartuko eta ez dira “Eleizaren Ondasuntzat” hartuko.

Aitatutako ondasunok indarrean dagoan araudiaren arabera edo honako kuotak edo laguntzak ezartzerakoan beren-beregi adierazotako erespideen arabera administratuko dira, jarritako helburuetarako erabiliz.

2.- Artikulu honen aurreko atalean jasoten ez diran Fundazinoaren Ondasun eta Eskubide guztiak, Fundazinoaren horniduraren zati izan ala ez, “Eleizaren Ondasun-

tzat” joko dira, erakundearen izatasuna kanonikoa izateagaitik, eta Zuzenbide Kanonikoko arauen eta honako estatutu honeen menpe geratuko dira, euren titulartasunaren, administrazioaren, erabileraren eta antolamentuaren erregimenari jagokonez.

8. ARTIKULUA.- BALIABIDEEN ERABILERARAKO ARAUAK

1.- Fundazioaren Hornidura-ondarea osatzen daben ondasunak euron jatorria kontuan hartuta ahalik eta egokien inbertituko dira, frutu edo errenta egokiak eragin daiezan. Alde batera itziko dira era guztietako espekulazioak, baina kontu handia izango da txanponaren balizko balio-galtzearen aurrean ahalik eta defentsarik onena egiteko, eta helburu horretarako Fundazioaren ondare egonkortzat hartuz.

2.- Patronatuak etenbako arreta eta ardua jarriko dau Fundazioaren hornidura-ondasunen inbertsinoa egokiena izan daiten une bakotxean, egoera ekonomikoaren arabera. Horretarako, eta egintza administratibo arrunt lez, edozein hornidura-ondasun higigarri eta higiezin jadetsi eta saldu ahal izango dau eta baita egokitzat jotzen diran balio eta gordailuetan inbertitu be.

3.- Hornidura-ondasun ez diran ondasun eta eskubideak zuzenduta egongo dira, eta oso-osorik erabili edo kontsumitu ahal izango dira, fundazioaren jarduerak betete aldera.

4.- Handik edo hemendik jaso eta hornidura-ondasun ez diranen administratibotik, kudeaketa arduratsu eta zorrotzaren eraginez, soberakinak sortuko balira, Patronatua arduratuko litzateke euron gestinoaz eta, erakunde horren adostasun edo erabagiz, Fundazioaren gastu edo inbertsinoetara, eleizbarrutiko beste ikastetxe batzuentzako edo gizarte erakundeentzako ekarpen solidarioetara edo aurreikusitako beharrezko aurre egiteko balioko dauan Erreserba-fondoa eratzera zuzendu ahal izango dira.

III. TITULUA

GOBERNU-ORGANOEI BURUZ

9. ARTIKULUA.- KIDE ANITZEKO ORGANOAK ETA PERSONA BAKARREKOAK

1.- Hona hemen Fundazioaren gobernu-organoak:

- Kide anitzekoak: Patronatua, Batzorde Eragilea eta Batzorde Bereziak.
- Persona bakarrekoak: Presidente, Presidenteordea, Idazkaria eta Zuzendari Nagusia.

I. KAPITULUA

KIDE ANITZEKO ORGANOAK

10. ARTIKULUA.- PATRONATUA. IZATASUNA ETA OSAKETA

1.- Fundazioaren gobernuan, Patronatua izango da kudeaketa eta ordezkaperako organo nagusia, Bilboko Eleizbarrutiko Gotzainari eta Eleizako hierarkiari, estatutu honeen eta Zuzenbide Kanonikoaren arabera, jagokezan eskumenei kalterik egin barik.

2.- Patronatua gehienez be hamabost kidez osatuta egongo da.

Hasierako Patronatuk kideen kopuru hori hamabosteko gehienezko kopurura arte gehitu ahal izango dau. Hori egiteko erabagia eta kide barrien izendapena Bilboko Gotzainari jagoko, bere ekimenez, edo Patronatuak, kide guztien bi herenen gehien-goagaz, proposatuta.

3.- Patronatuko kideak bi eratakoak izango dira: Berezko Kideak eta Izendapenezko Kideak.

4.- Fundazinoko Berezko Kideak dira:

- Presidente, kargu hau Bilboko Gotzainari jagokolarik.
- Presidenteordea, Gotzainak kargu horretarako izendatuko dauan Bilboko Eleizbarrutiko Bikario Nagusia.
- Ebanjelizazio eta Katekesirako Bilboko Gotzaitegiko Ordezkarria edo antzeko kargua.
- Bilboko Gotzaitegiko Idazkari Nagusia.
- Bilboko Gotzaitegiko Eleizbarrutiko Ekonomoa.
- Fundazinoko Zuzendari Nagusia.
- Marcelo Gangoiti Fundazio Kanoniko Autonomoko Ordezkarria Nagusia.
- Begoñako Andra Mari Eleizbarrutiko Irakasle Eskolako Zuzendaria.

5.- Patronatuko gainerako Kideak izendapenezkoak izango dira.

Gotzainak izendatuko ditu Patronatuko Izendapenezko kideak, legeetan, erakunde zuzendaritza eta administrazioan, hezkuntza arloan egiaztatutako iaiotasuna eta, azkenik, kalidade kultural eta morala daben gizon eta emakumeen artean.

6.- Patronatuko kideari jagokon kargua doakoa da, baina ordainsaria jaso daike Fundazioaren zerbitzura egindako gastuengaitik.

7.- Zuzendaritza Nagusia bere gain hartzen dauanari kargu honengaitik ordainduko jako eta ez Patronatuko kide izategaitik.

8.- Patronatuko Berezko Kideek kargu horretara iristeko eukien kargua izteaz batera itziko deutse kide izateari. Eurak eskatuta be itzi daikie kargua, erabagiaren arrazoiak ondo azaldu eta Gotzainak onartu eta gero.

9.- Patronatuko Izendapenezko Kideek bost urtez iraungo dabe karguan; ondoren, bost urteko aldietarako berretsi ahal izango dabez karguan muga barik, eta karguari itziko deutse aitaturako aldi hori betetan eta baliogabetzean, edo heriotzagaitik, ezintasunagaitik, Gotzainak onartutako uko egiteagaitik eta, edozein kasutan, larogei urte betetean.

10.- Gotzainari jagoko Patronatuko Izendapenezko Kideen izendapena eta baliogabetzea.

11.- Gotzainak edozein unetan baliogabetu ahal izango dau Patronatuko kide kargua.

11. ARTIKULUA.- PATRONATUAREN ESKUMENA ETA AHALMENAK

1.- Patronatuari jagoko Fundazioaren administrazioa eta ordezkaritza, eta, indarrean dagozan baldintza kanonikoak kasu bakotxean betez, era guztietako ondasun higigarri eta higiezinaren gaineko administrazio eta antolamentu, besterentze, zerga, uko egite eta transakzio edo menperatze zorrotzerako ekintza guztiak burutzeko, era guztietako obligazioak hartzeko eta epaiketari edo epaiketatik kanpo jagozozan egintza eta eskubideak gauzatzeko ahalmena izango dau.

2.- Fundazioaren helburuak betetea ahalbideratzeko, Patronatuak, besteak beste, ondorengo eskuduntzak ditu:

- Batzorde Eragileko kideak izendatu eta euroi jagokezan eskumenak erabagi.
- Estatutuetan aurreikusitako Batzorde Bereziak eta Fundazioaren jardura zuzenerako komenigarritzat jotzen dituan beste batzorde eta lan-talde batzuk eratu eta horreetako karguak izendatu eta dalako kargu horreek baliogabetu.
- Fundazioaren Zuzendari Nagusia izendatu edo berau kargutik kendu.
- Fundazioa ordezkatu aginte publikoen eta gainerako erakundeen eta persona fisiko eta juridikoen, publiko eta pribaduen aurrean.
- Fundazioaren eskubideak defendatu epaiketari eta epaiketatik kanpo, horretarako beharrezko aginpidea emonez abogadu eta prokuradoreei.
- Fundazioaren ondarea administratu eta bere erregimen ekonomikoa zehaztu, indarrean dagoan legeriaren arabera.

- Fundazioaren ondasun eta balioak egoera onean gorde, iraun eta jagoken ekoizpena izan daien.
- Urteko kontuak, aurrekontuak, ohikoak zein ezohikoak, ekitaldi bakoitzeko egoera finantzarioak, urteko jardueren Oroitza-txostena eta Jarduera-plana onartu edota aldatu.
- Fundazioaren hedapen handiagoa ala txikiagoa onartu, haren baliabideak eta unean uneko inguruabarrak kontuan hartuta.
- Fundazioaren aldeko dohaintzak, herentziak eta legaduak onartu eta, jago-konean, Hornidura-ondareari erantsi.
- Ezarpen orokorreko arauak eta Barne Araudia onartu.
- Berak hartutako akordioak gauzatu eta estatutu honeek, Fundazioaren xede eta helburuen arabera, egozten deutzazan eskumen guztiak burutu.
- Aginte orokor edo bereziak emon, erabagitako eskumenakaz.
- Gotzainari estatutuen barritze edota aldaketa, Fundazioaren bat-egitea, be-reiztea edo desagertzea edo Patronatuko kideen kopuruaren gehitzea edo gi-txitzea proposatu, erabagi honeek hartzeko kide guztien heren biren akor-dioa ezinbestekoa dalarik.

12. ARTIKULUA.- PATRONATUAREN FUNTZIONAMENTUA

1.- Patronatua urtean bi bider batzartuko da, ohiko saioan, behin urteko lehen seihilekoan eta beste behin urteko azken hiruhilekoan.

Presidenteak beharrezkotzat jotzen dauan bakoitzean edo kideen herenak eska-tzen dauanean, ezohiko saiorako deialdia egingo da eta, kasu horretan, eskaria jaso eta hurrengo hamabost egunen barruan deitu beharko dau.

2.- Presidenteak edo izendapenez bere ordezkariak dagoanak deituko ditu batzarrak.

Deialdiak, eguneko gai zerrenda, batzarra egiteko lekua, eguna eta ordua jasoko ditu. Batzarra, Fundazioaren edozein ikastetxetan edo Bilboko Gotzaitegian egin dai-teke.

Idazkariak gitxienez hamar egun aurretik bialdutako gutun bidez egingo da deialdia. Kontua presakoa edo urgentea bada, epe hori egun bitara murriztu daiteke eta deialdia telegrama, telefax edo mezu elektronikoko bidez egin, beti be jaso izanaren baieztapena jasotea ziurtatuz.

3.- Saioak ospatu ahal izateko, ezinbestekoa da kideen erdia gehi baten partaide-tza, kideak eurak edo euren ordezkariak izango diralarik batzarrean.

4.- Patronatuko Berezko Kideek bakarrik izan daikie ordezkaritza eta Patronatuko beste kide bat izango da beti ordezkaria.

5.- Idazkaria izango da Patronatuaren saioetan eta, Patronatuko kide ez bada, hitza izango dau, baina botorik ez. Era berean, Presidenteak egokitzat jotzen dituan personak konbidatu ahal izango ditu aholkulari lez eta honeek be hitza izango dabe, baina botorik ez.

6.- Patronatuaren akordioak batzartutakoen (bertan dagozanak edo ordezkatuak) gehiengo osoaz hartuko dira eta Idazkariak, behin batzar-agiriak onartuta, jagon Akta-liburuan jasoko ditu.

Bardinketa egon ezkeru, Presidenteak izango dau boto erabagitzaila.

Betetzea, eskuordetze bereziren bat ez bada, Presidenteari edo bere ordez dagoanari jagoko.

7.- Karguan dgozan Patronatuko kide guztien heren biren gehiengoa ezinbestekoa da ondorengo akordioetarako:

- Batzorde Eragileko kideen izendapenerako edo euren kargu-izterako.
- Fundazioaren ondareen antolamenturako, besterentzeko edo zergapetzeko.
- Estatutuen edozein aldaketarako.
- Fundazioaren bat-egitea, bereiztea edo desegitea eta desagertzea adostu eta Eleizbarrutiko Gotzainari proposatzeko.
- Eleizbarrutiko Gotzainari Patronatuko Kideen kopurua estatutuetan jasotako mugaren barruan gehitzeko edo gitxitzeko proposamena egin.

8.- Presidenteak zuzenduko ditu saioak, berak emongo edo kenduko daualarik hitza, gai bat nahiko eztabaidatuta geratu dala uste dauanean. Erabagiak hartu behar diranean, Presidenteak izango da beti botoa emoten azkena; bardinketa gertatuko baltz, kalidadeko botoa erabilteko aukerea izango leuke. Presidenteak ez dagoanean, Presidenteordeak beteko ditu haren egitekoak Patronatuaren batzarretan.

9.- Ekitaldi ekonomikoaren azken hiruhilekoan ospatzen dan Patronatuaren saioan, aurrekontuak, hurrengo ekitaldirako Jarduera-plana eta Oroitza-txosten azaltzailea aurkeztu eta onartuko dira.

Ekitaldiaren lehenengo seihilekoan ospatzen dan saioan, aurreko ekitaldiaren balantzea, sarreren eta gastuen kontua, oroitza-txostena eta kitapena aurkeztu eta onartuko dira.

13. ARTIKULUA.- BATZORDE ERAGILEA

1.- Patronatuak Batzorde Eragilea eratu ahal izango dau bere kideen artean, Fundazioaren, eta batez be, Batzorde Berezien jardueren ezagupen, jarraipen eta kontrolerako. Era berean, bere gain hartuko ditu 1280. kanonean Eleizaren persona juridiko publikoentzat eskatutakoa betez, ekonomia gaietarako Batzordearen egitekoak.

2.- Fundazioaren Patronatuak jarritako zuzendaritza-arauak beteko ditu eta kontuak emongo deutzaz erakunde nagusi horri.

3.- Besteak beste, urteko kontuak eta aurrekontuak, oroitza-txostena eta euron kitapena, Zuzendariak prestatuko dauan jarduera-plana aztertu eta onartuko ditu lehenengo eta behin eta Patronatuari aurkeztuko deutzaz ondoren, honek onartu daizan.

4.- Gitxienez hiru kide izango ditu eta gehienez bost.

5.- Patronatuari jagoko Batzorde Eragilea izendatzea eta baliogabetzea.

6.- Patronatuko Presidentea izango da Batzorde Eragileko berezko Presidentea, baina, halanda be, presidentetza hori Presidenteordearen esku itzi daike era iraunkorrean, edo Patronatuko beste kide baten esku, saio jakin batzuetarako.

7.- Batzorde Eragileak Idazkaria izendatuko dau batzordean bertan edo batzordetik kanpo eta, azken kasu honetan, hitza izango dau, baina botorik ez.

8.- Karguaren iraupena bost urterako izango da, bere izendapen barriari edo baliogabetzeari kalterik egin barik.

9.- Batzorde Eragileko kidearen kargua doakoa izango da, bere jarduerak eragiten deutzazan ondo justifikatutako gastuen ordainketari kalterik egin barik.

10.- Zuzendari Nagusia Batzorde Eragileko berezko kidea izango da.

11.- Batzorde Eragilea gitxienez urtean lau bider batzartuko da, hiruhilekoan behin, eta Presidenteak deitzen dauan guztietan.

14. ARTIKULUA.- BATZORDE BEREZIAK

1.- Patronatuak komenigarritzat joten dauan beste Batzorde Berezi sortu ahal izango dau fundazioaren helburuak hobeto beteteko eta batzordeotako kideak kargutik kendu ahal izango ditu eta euren eskumen eta ahalmenak zehaztu.

2.- Batzorde honeek teknikoak izango dira eta fundazioaren helburuak hobeto beteteko garrantzitsutzat joten diran alderdi edo arloetan espezializatuak.

3.- Batzorde Berezi guztiek Patronatuak jarritako arau orokorrak beteko dabez, Batzorde Eragileak ikuskatuko ditu, Zuzendari Nagusia izango da buru eta Patronatuak izendatutako pertonez osatuta egongo dira. Kideok batzorde bakotxaren izaerari jagokozan jarduerak garatuko dabez Fundazinoko Ikastetxeetan.

4.- Zuzendarien Batzordea.

Fundazinoko Ikastetxeen arteko ahalik eta lankidetzarik handiena bermatzeko eta fundazioaren helburuen ahalik eta ondoen beteteko, Patronatuak Zuzendarien Batzordea sortuko dau. Fundazinoko Ikastetxe bakotxeko zuzendariak eta Batzorde Berezi bakotxeko berezko kideak edo, berezko kiderik ez daben batzordeetako ordezkariak izango dira Zuzendarien Batzorde honetan.

Batzorde Berezi bakotxeko berezko kidea edo ordezkaria zuzendaria bera danean, bere presentzia bermatutzat joko da, eta ez da beste inor izendatuko helburu horretarako.

Batzorde honen ardurea da, batez be, irakaskuntzarako eleizbarrutiko ikastetxeen hezkuntza eta pastoral misinoagaz bat, beharginen hautaketa eta prestakuntzarako erespideak ezartzea eta, horrezaz ganera, dalako erespide horreen ezarpen praktika bermatzea, egokitze jotzen dituan mekanismoen bitartez. Horretarako, Zuzendarien Batzordeak lankidetzan estuan jardungo dau ondorengo puntuan zehazten dan Batzordeagaz.

5.- Pastoral Batzordea.

Bere esku izten dan berariazko egintzaren lorpenaz arduratzeko, hau da, Eleizbarrutiko Hezkuntza-egitasmoaren ikuspuntutik umeei, gazteei eta helduei osoko heziketa emoteko, Patronatuak Pastoral Batzordea sortuko dau. Bilboko Gotzaitegiko Hezkuntzarako Saileko Zuzendaria izango da aitaturako batzorde horretako berezko kidea.

Honeek dira Batzorde honen helburu nagusiak:

- a) Fundazinoko Ikastetxeetako Pastoral Sailak suspertu eta koordinatu,
- b) kristinau nortasuna eta Eleizbarrutiko Hezkuntza-egitasmoagazko bat egitea suspertu Fundazinoko Ikastetxeetan jarduten daben gizon eta emakume guztiengan.

6.- Lanbide Heziketarako Batzordea.

Bilboko Eleizbarrutian Lanbide Heziketarako hiru Ikastegi edo gehiago egon ezkerro, Patronatuak Lanbide Heziketarako Batzordea sortuko dau, Lanbide Heziketaren inguruko beharrezanean erantzuteko beren-beregi, horretarako egokitzat jotzen diran ekintza guztiak proposatuz eta, jagokonean, garatuz. Lanbide Heziketako Ikastegi bakoitzeko zuzendaritzaz arduratzen diran personak izango dira Batzorde honetako berezko kideak.

7.- Patronatuak Batzorde Berezien Jarduerarako Araudia eta Arauak onartuko ditu. Horretarako Zuzendaritza Nagusian buru danak proposamena egingo deuto Batzorde Eragileari eta honek aurkeztuko deusaz aitaturako Araudi eta Arauok. Era berean, egiteko pedagogiko eta administratiboak garatzerakoan Fundazinoko ikastetxeen aldetik kalidaderik onena bermatzeko era egokienari buruz Batzorde Eragileak egiten dauan proposamena aztertuko dau eta, jagokonean onartu.

II. KAPITULUA

PERSONA BAKARREKO ORGANOAK

15. ARTIKULUA.- PRESIDENTEA

1.- Bilboko Gotzaina da Fundazinoko Berezko Presidentea.

2.- Presidentearen egitekoak dira:

- Fundazinoa ordezkatu era guztietako persona edo erakunde fisiko eta juridiko, publiko eta pribaduen aurrean eta era guztietako agintarien aurrean eta ekitaldi publiko eta pribadu guztietan; eta xede guztietarako, eraginkortasun juridiko beteaz esku-hartzea jagokonetan.
- Patronatuaren batzarrak deitu eta bertan buru izan eta —Idazkariaren bitartez— organo honen batzarretarako gai-zerrenda eratu.
- Patronatuaren saioetan ordena eta eztabaidak zuzendueta Patronatuko kideen misinoa koordinatu.
- Patronatuaren akordioak eta Idazkariak egiten dituan eta bere onespena eskatzen daben gainerako idazkiak, ziurtagiriak, aktak, balantzeak, oroitzatxostenak eta izendapenak bere Oneretxiagaz baimendu.
- Patronatuan edo Batzorde Eragilean aurkeztu beharreko txosten eta agiriak egitea aldeztu aurretik baimendu.

- Fundazioaren izenean, Estatutu honeetan jasotakoaren arabera, era guztietako herri-, merkataritza-, administrazio-kontratu, hitzarmen eta operazioak eta beste era batekoak burutu eta abogadu eta prokuradoreei agintea eman.
- Fundazioaren Estatutuen eta xede eta helburuen beteteaz arduratu eta, era berean, adi egon, hartutako akordioak bete daitezan.
- Landuko diran gaien nondik-norakoa dala-eta, kontsulta egitea komeni dan edozein lagun konbidatu gobernu-organoen saioetara.
- Estatutu honeetan jasotakotik eratorritako edo Patronatuak agindutako beste edozein gestino egin Fundazioaren alde.
- Beren-beregi eta noiz edo noiz edo maiz, egiteko honeetako batzuk Presidenteordearen edo Patronatuko beste kideren baten esku itzi. Eskuordetze hori ohikoa bada, Patronatuaren onespena izan beharko dau.

16. ARTIKULUA.- PRESIDENTEORDEA

1.- Gotzainak kargurako izendatzen dauan Bikario Nagusia izango da Fundazionoko Presidenteordea.

2.- Presidente ez dagoanean honen ordezkari jardutea eta honi jagokozan egitekoak bere gain hartzea izango da bere eginkizun nagusia. Horretarako, Presidenteak berak jakinarazoko dau bide eraginkorretik Presidente falta izango dala.

3.- Presidenteak, Estatutu honeetan eta, batez be, aurreko artikuluan jasotakoaren arabera, Presidenteordearen kargu itzi ahal izango ditu be egitekoetako batzuk.

17. ARTIKULUA.- IDAZKARIA

1.- Patronatuak izendatuko dau idazkaria, Patronatuko kide diranen edo ez diranen artean. Patronatuko kide ez bada, bileretan hitza izango dau baina botorik ez.

2.- Honako egitekoak izango ditu:

- Eguneko gai zerrenda prestatu eta, Presidentearen aginduz eta bere oharpenak jarraituz, Patronatuaren bilerak deitu, eta Patronatuen bileretako aktak idatzi.
- Fundazioaren akordioen zein beste edozein agiriren ziurtagiriak igorri, horretarako Presidentearen edo eskumena jaso dauan Patronatuko kidearen oneretxia jasoz.

- Fundazioaren Liburuez eta korrespondentziaz arduratu eta bere kargu itzi-tako gaiak bideratu.
- Estatutu honeen testuinguruan sortzen dan edo Fundazinoko gobernu-organoeak agintzen deutesen beste edozein.

18. ARTIKULUA.- BOKALAK

1.- Presidente, Presidenteorde, Idazkari eta Zuzendari Nagusi karguak ez dabezan Patronatuko kideak Patronatuko Bokalak izango dira izendatzen dabezan estatutu-aldian.

2.- Bokalek honako egitekoak izango dabez:

- Patronatuak deitutako batzar guztietan parte hartu.
- Fundazioaren helburuak hobeto beteteko komenigarritzat jotzen dabezan ekimenak Patronatuari aurkeztu.
- Presidenteak edo Patronatuak, eskuordetzez, euren kargu izten dabezan ekitaldi eta kontuetan Fundazioa ordezkatu.

19. ARTIKULUA.- ZUZENDARI NAGUSIA

1.- Patronatuari jagoko Fundazinoko Zuzendaritza Nagusian jardungo dauan persona zein izango dan erabagitzea eta, ondorioz, Presidenteak izendatu eta kontratatuko dau bost urteko eperako eta nahi dauan beste bider barritu ahal izango dau karguan beste bost urtetako aldietarako.

2.- Zuzendaritza Nagusiaren izaera eragilea izango da eta kargu horretan dagoana arduratuko da Fundazioaren jardueren Zuzendaritza eta Koordinazioari lotutako egitekoak burutzeaz. Dalako jarduera horreek Patronatuak onartuko ditu, batez be, estatutu honeen 2. artikuluan jasoten danaren arabera, Fundazioaren helburu nagusiari jagokozanak, hau da: “Eleiza Katolikuaren doktrinaren berariazko oinarri eta balioen arabera, bere onuradunen artean irakaskuntza konfesionala suspertu”.

3.- Zuzendari Nagusiak Fundazioa ordezkatu dau bere karguari jagokozan ekitaldietan eta horretarako Patronatuak jagokozan eskumenak emongo deutesaz.

4.- Zuzendaritza Nagusia bere gain hartzen dauanak ez dau Fundazioaren hornidura-ondarea erabilteko ahalmenik izango.

5.- Kargua ordaindua izango da.

6.- Zuzendaritza Nagusia bere gain hartzen dauanak unean-unean Fundazioaren jardueren kontu emongo deutso Patronatuari, organo honen aurrean bidezkoztat jotzen dituan ekimenak aurkeztu eta eztabaidatuko ditu eta bertatik jasoten dituan aholku eta arauak gauzatuko ditu.

7.- Zuzendari Nagusiaren egitekoa izango da ondoren aitutzen diranak prestatzea eta Batzorde Eragileari aurkeztea, ondoren Patronatuari aurkezteko eta honek, jagokonean, onartzeko:

- Hurrengo ekitaldirako jarduera-egitasmoa eta aurrekontuak.
- Urteko kontuak, balantzea sarrera eta gastuen kontua.
- Ekitaldiko jardueren oroitza-txostena eta jarduera-egitasmoari buruzko txostena.
- Aurreko ekitaldiko egoera finantzarioak eta aurrekontuaren kitapena.
- Patronatuak bere kargu itzitako auzi guztiak.

IV. TITULUA

ONDASUNEN ADMINISTRAZINOA ETA ELEIZBARRUTIKO GOTZAINAREN ESKUMENAK

20. ARTIKULUA.- ADMINISTRAZINOA

Patronatuari jagoko Fundazioaren ondasunen administrazinoari lotutako egintza guztiak burutzea; halanda be, Eleizbarrutiko Gotzainaren baimena jadetsi beharko dau ohiko administrazinoaren helburuak eta modua gainditzen dabezan egintzak burutzeko. Administrazinoaren egiteko honek beteterakoan, kontuan hartuko dira Eleizako Persona Juridiko Publikoentzako ezarritako agindu kanonikoak (ik. C.I.C, 1279-1289 kk.).

21. ARTIKULUA.- FUNDAZINOAREN KONTUAK, EGITASMOAK ETA TXOSTENAK

1.- Batzorde Eragileak urtero prestatuko dau, Patronatuari aurkeztu eta onartu daian:

- abenduaren 31ko data izango dauan emaitzen balantze eta kontua, eta aurreko aurrekontuaren kitapena;

- fundazioaren kapitalaren inbertsinoaren egoera erakuslea, goiko data erreferentziatzat hartuta;
- fundazioaren jardueren eta helburuen betetearen txosten azaltzailea, ondarearen inbentarioa eta jarduera-egitasmoaren betete-mailari buruzko txostena erantsiz;
- hurrengo ekitaldirako aurrekontuak eta jarduera-egitasmoa.

2.- Urteko kontuak eta dokumentazio kontablea eleizbarrutiko arautegi kontableari egokituko jakoz, horren inguruko legeria zibil eta kanonikoa kontuan hartuta.

3.- Aurreko agiriok, Patronatuak onartu eta 1284 kanoneko aginduak bete ondoren, Eleizbarrutiko Gotzainari aurkeztuko jakoz, behin betiko onartu daizan.

22. ARTIKULUA.- ONDASUNEN BESTERENTZEA

1.- Patronatuak, Persona Juridiko Publikoei buruzko Legeria Kanonikoa (CICko 1290-1298 kanonak) beteta, Fundazioaren ondasunen erabilerarako eskumen bete dau.

2.- Kasuren batean Fundazioaren Ondarea osatzen daberen ondasunen besterentzea gauzatuko baleu, "Eleizaren ondasunen" erabilerari buruzko xede kanonikoak beteko dira.

3.- Aitatutako arau kanoniko horreek Fundazioaren ondare-egoera kaltetu daikien eragiketa guztietan be bete beharko dira.

23. ARTIKULUA.- ELEIZBARRUTIKO GOTZAINAREN ESKUMENAK

Arau kanoniko orokor edo partikularretan ezarritako eskumenei kalterik egin barik, Eleizbarrutiko Gotzainari jagoko:

- Fundazioaren jarduera guztiak bisitatzeko eta ikuskatzeko eskubidea.
- Bere urteko kontuak onartzea.
- Patronatuari bere gestinoaren barri zehatza eskatzea.
- Arau kanoniko eta zibilen arabera, Fundazioaren ondasunak besterentzeko ezinbesteko baimena emotea.

V. TITULUA

ESTATUTUEN ALDAKETA ETA DESEGITEA

24. ARTIKULUA.- ESTATUTUEN ALDAKETA

Honako estatutuok edozein unetan aldatu ahal izango dira, Eleizbarrutiko Gotzainaren erabagiz, berez edo Patronatuaren proposamen arrazoituz.

25. ARTIKULUA.- FUNDAZINOAREN DESEGITEA

1.- Fundazioa desegin egingo da bere helburuak beteteko gauza ez bada, edozein izanda be ezintasun hori eragiten dauan arrazoia.

Kasu horretan, desegitea eskubide osoz gertatuko da, baina Patronatuak egiaz-tatu beharko ditu eragiten daben gertaerak eta Eleizbarrutiko Gotzainaren menpe itziko ditu.

2.- Araudi kanonikoaren arabera, Eleizbarrutiko Gotzainak erabagita be desegin ahal izango da.

3.- Dana dala, Fundazioa Gotzainak beren-beregi kaleratutako Dekretuaren bidez baino ez da desegingo.

26. ARTIKULUA.- ONDASUNEN XEDEA

1.- Fundazioa desegiten bada, Patronatuari jagoko Eleizbarrutiko Gotzainari haren ondarearen kitapena proposatzea.

2.- Fundazioaren kitapenetik eratorritako ondasunak Bilboko Eleizbarrutiaren-tzat izango dira.

Bilbao, bi mila eta hamabosgarreneko uztailaren hogeta hamaika.

Ikusita eta onartuta

+ Mario Izeta Gabikagoxeaskoa

Bilboko Gotzaina

Fede emoten dot

Felix M^a Alonso Alonso

Kantzelaria

Información. Albisteak

SECRETARÍA GENERAL

Nombramientos

- ZUGAZARTAZA GAMBOA, JUAN CARLOS: Párroco de las parroquias “San Miguel Arcángel” de Artzentales, y “Nuestra Señora” de Traslaviña-Artzentales (02.02.2015).
- GONZÁLEZ ESPINO, EDUARDO: Responsable del Servicio Religioso del Cementerio de Derio (10.06.2015).
- KAREAGA MENIKA, M^a BEGOÑA: Directora de la revista “Los Ríos” (10.07.2015).
- RODRÍGUEZ DE PEDRO, ASIER: Delegado de Euskalerriko Eskautak Bizkaia (24.07.2015).

CAJA DIOCESANA DE COMPENSACIÓN

Acta de la reunión de la Permanente celebrada el 16 de junio de 2015

